

“Sortzaileek Euskal Herriagaz duten harremana kontatzen dut liburuan”



Jose Julian Bakedano
Zinemagilea • 22

14 tona janari batu ditu Durangaldeko karabana solidarioak, iaz baino 6 gehiago

Durangaldea | 2003tik kamioia eraman duen Angel Alejok azken aldia izango du aurtengoa, eta egindako lana eskertu diote antolatzaileek. • 3



"Zaintza lana ez da batere baloratzen"

Pilar Mazagak egoitza batean lan egiten du, eta Julieta Tomalá barneko langile moduan dabil, pertsona nagusi bat zaintzen. Martxoaren 8ko aldarrikapenen isla dira biak. Gizarteak zaintza lanaren premia du, baina emakumez osatutako sektore honetan ez dio lan horri baliorik aitortzen. Prekaritatea eta ikusezintasuna azaleratu gura izan ditu mugimendu feministak. • 12-13

MAR TXOAK 8

ANBOTOk emakumeok martxoaren 8rako deitutako grebagaz bat egingo dugu. Ondorioz, hurrengo alea martxoaren 9an, zapatuan, kaleratu eta banatuko dugu.



Martxoaren 1etik 31ra
ESKAINITZA IKARAGARRIAK
6.400 € -tik aurrera
zure neurriko finantziarioarekin

SCHMIDT
Zu ez zarela besteak bezalakoa

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitetz geurera hemen



EAJk eskualderako alkategaiak aurkeztu ditu, "eskarmantua, lana eta ilusioa" eskainita

Mireia Elkoroiribe alkategaiak dio "ilusioz beteta" dagoela, "guztion artean 2030eko Durango eraiki ahal izateko"

DURANGALDEA • M.Z./M.O.

Udal eta foru hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu zituen EAJk domekan, Landakoko zabalgunean eginiko jendaurreko ekitaldian. Durangaldean zerrendaburu izango direnez gainera, batzar nagusietarako hautagai den Unai Rementeria ahaldun nagusiak eta Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentek parte hartu zuten ekitaldian. Rementeriak adierazi zuen "eskarmantua, lana eta bereziki ilusioa" eskaintzen dutela euren hautagai direnekin.

Mireia Elkoroiribe alkategai durangarra "ilusioz beteta" agertu zen, "guztion artean 2030eko Durango eraiki ahal izateko". Durango Helburu partaidetza prozesuaren ostean, herritarren iritzia auzoetan entzungo dutela iragarri zuen.

Elkoroiribegaz batera, Mikel Garaizabal (Abadiño), Xabier Azkarate (Atxondo), Orlan Isoird (Berriz), Joseba Mujika (Elorrio), Erramun Osa (Garai), Iñaki Totorikaguena (Iurreta), Aroa Gonzalez (Izurtza), Igor Agirre (Mallabia), Endika Garate



EAJko eskualdeko hautagaiak, domekan, Atutxa eta Rementeria gaz.

(Otxandio) eta Andoni Agirrebeitia (Zornotza) aurkeztu zituen EAJk. Mañaria eta Zaldibarko hautagaiak aukeratzeko prozesuan daude.

Bestalde, EAJk *Berpiztu Elorrio* prozesua ipini du martxan, herritarren iritzia ezagutzeko. "Gure herria apurka-apurka itzaltzen ari da. Erritmoa berreskuratu eta etorkizun-proiektu bat eman behar diogu", adierazi du Joseba Mujika alkategaiak.



Elorriko EAJren zerrenda osatzen duten kideak, talde argazkian.



Urduñako eskolako jantoki proiektua ezagutzen egon da Berton Bertokoa

DURANGALDEA • M.O.

Jaurilaritzak eskola jantokien legea aldatu du, guraso elkartei autogestiorako aukera eskaintzeko. Berton Bertokoa ez dago ados ardura osoa gurasoei uzteagaz, eta instituzioen inplikazioa eskatu du. Bide horretan, Urduñako proiektu pilotua ezagutu dute, euren errealitate-tik "hurbilena". Eskola ondoko zaharren egoitzako sukaldian prestatzen dute bertako eta sa-soiko janaria, 130 ikaslerentzat. Diotenez, udalak "erabateko babes" eman du, eta landa garapenerako elkarteak 230.000 euro inguruko inbertsioa egin du sukaldia berritzeko.

Aiartzaguena eta Muñoz, EH Bilduren alkategai

Iurretako eta Izurtzako alkategaiak aurkeztu ditu koalizioak

DURANGALDEA • A.B./M.Z.

EH Bildu bere hautagaiak aurkeztu dabil, eta asteen beste biren izenak iragarri ditu. Liher Aiartzaguena izango da Iurretako alkategaia, eta Lorea Muñoz Izurtzako.

Aiartzaguena EH Bilduko zinegotzia izan da Iurretan azken legegintzaldi bietan. Sistemen Informatikako ingeniari teknikoa da eta urteak daramatza informatikako irakasle moduan lanean. Herri mugimenduan, Kimuak aisialdi elkar-tearen sortzailetako bat izan zen,

eta, egun, Zaldai mendi taldean eta jai batzordean parte hartzen du.

Izurtzan, legegintzaldi honetan alkate izan da Muñoz, baita 2007tik 2011ra ere. "Aurreko legegintzaldian hasitako proiektuekin aurrera egingo dugu eta Izurtza hobe bat egiteko lanean jarraituko dugu", esan du.

EH Bildu koalizioak martxoan zehar osatuko ditu zerrendak. Zornotzan, esaterako, hilaren 10ean amaituko da proposamenak egiteko epea.



Liher Aiartzaguena, Iurretako hautagaia.



Lorea Muñoz, Izurtzako hautagaia.

Kimuak eta Katalamixon elkarteek hasi dute udalekuen inskripzioa

DURANGALDEA • M.O.

Iurretako Kimuak elkarteak hiru udaleku antolatu ditu uztaileko, eta martxoaren 4ra arte dago zabalik izen-ematea. Zozketa hilaren 6an egingo dute, 19:00etan, Goiuria kultur-gunean. Abadiñoko Katalamixonek udaleku bi prestatu ditu, bat finko-ibiltaria, lehenengoz. Gaur, lokalean egongo da apuntatzeko aukera, 17:00etatik 19:00etara. Bihartik aurrera, telefonoz edo posta elektronikoz.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko martxoaren 1a
17. urtea - 753. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Hainbat politikariren babesagaz talde argazkia atera zuten karabana solidarioko kideek, eguaztenean, Durangoko Elkartearen parean.

Iaz baino 6 tona elikagai gehiago eman dituzte Durangaldeko herritarrek sahararren alde

Janari bilketan 14 tona batu dituzte eta instituzioek emandako diru-laguntzagaz beste 13 tona erosi dituzte

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Sahararen aldeko karabana solidarioaren aurkezpena egin zuten eguaztenean, Saharako Errepublikan Demokratiko Arabiarren aldarrikapeneko 43. urtemuga egunean. Rio de Oro elkarteak eskualdeko elikagai bilketa antolatu du,

Mikel del Arco:
"Beste behin ere, Durangaldea solidarioa da sahararrekin"

eta Elorrion Lajwad elkarteak sustatu du. 14 tona janari batu dituzte Durangaldean, iaz baino 6 gehiago. Rio de Oroko Mikel del Arcok igoera hori nabarmendu du, eta uste du Durangaldea saharar herriarekiko duen elkartasuna erakusten duela. "Beste behin, Durangaldea solidarioa da sahararrekin", esan du. Laguntza humanitarioaren behararen oinarrian gatazka politikoa dagoela gogoratu du.

Instituzioek emandako diru-laguntzagaz (32.700 euro) 13 tona elikagai erosi dituzte. Kamioian 24



ANGEL ALEJO

"Boluntarioen bat badago, behar den guztirako prestatzen lagunduko diogu"

tona sartzen zirenez, herritarrek emandako hainbat elikagai euskal karabanako beste kamioi batean eramango dute. Beste zati bat JAED elkartearentzat gorde dute, beharritza duten familiei emateko.

Produktuen parte bat ospitale baterako izango da, eta beste bat

minek kaltetutako pertsonen zentrora-ko. Bestalde, Durangaldeko pertsona anonimo batek odol analisiak egiteko makina bat dohaintzan eman izana eskertu du Mikel del Arcok.

Angel Alejori esker ona

2003az geroztik kamioia eramanez izan duen Angel Alejok azken aldia izango du aurtengoa, eta egindako lana eskertu gura izan zioten

antolatzaileek eguaztenean aurkezpena. Lore sorta bat eta oroi-garri bat jaso zituen, txalo artean. "Datorren urterako boluntarioen bat badago, behar den guztirako prestatzen lagunduko diogu", esan zuten kamioi gidariak.

Alejo bihar irtengo da euskal karabanaren baitan, Alacantara; handik itsasontziz Oraneraino (Aljeria), eta orduan Fronte Polisarioa egingo da kamioiaren kargu. Gero, Ilargi Erdi Gorri Sahararrak banatuko dizkie elikagaiak herritarrei.

Ume sahararrak ekartzeko

Bestalde, udan ume sahararak errefuxiatuen kanpamentuetatik hona ekartzeko, martxan dute Oporrak Bakean programa. Interesdunei informazioa emateko, berbaldia egingo dute martxoaren 6an, 18:30ean, Durangoko Pinondon.

Maspe kalean zebra-bide bat gehiago egitea erabaki dute prozesu parte-hartzailean

lurretarren euren erabaki dute lan hauek gauzatzea, aurrekontu parte-partzaileen barruan; 39.700 euro erabili dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udalak hirugarrenez ipini du martxan aurrekontu parte-hartzaileen prozesua, eta bozketako fase erabakiorra gaingitu zuten hamar proposamenen artean lau egitasmo lehenetsi dituzte iurretarek: Maspe kalean zebra-bide bat gehitu eta horien argiteria hobetuko dute, 39.700 euro erabilia. Orozketak

jolasgunerako, 4.100 euro erabiliko dituzte, eta Larrakozelaian markagailu elektronikoa jartzeko, 3.100 euro. Azkenik, udal kale izendegiko plakak berriztuko dituzte, 4.600 euroko aurrekontuagaz.

Udalak 50.000 euro gorde ditu, herritarrek zertan erabili erabakitzeko. "Oso positiboki" baloratu dute ekimena eta jarraitzea gura dute.



Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren foroan 20 bat lagunek parte hartu dute.

29 urteko gizon bat auzipetu dute lurretako eraso sexistagaz lotuta

IURRETA • M.O.

Adin txikiko baten aurrean exhibizionismoa egiteagatik 29 urteko gizon bat auzipetu du Ertzaintzak, joan zen astean 17 urteko neska batek salatutako eraso sexistaren harira. Gainera, antzeko eraso gehiago egin izanagatik ikertzen ari dira.

Neska korrika egitera irten zen Neberondorantz, eta gizon bat bere aurrean masturbatzen hasi zen bidean. Gero, atzetik jarraitu zion, baina neskak laguntza eskatu zuen baserri batean.

San Agustingo ospitale zaharra gune soziokultural bihurtzea proposatu du Herriaren Eskubideak

Durango espazio soziokultural gehiago sortzeko plan integral bat osatzen dabil Julian Rios bozeramaile duen alderdia

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Udalerrian espazio soziokultural gehiago sortzeko plan integral bat osatzen dabil Herriaren Eskubidea, "dagoen gabezia" konpontzeko asmoz. Hainbat udalerritako gizarte etxe eta kultur etxeak bisitatu ostean, San Agustingo ospitale zaharrea gune soziokulturala zabaltzea proposatu du.

Rios: "Azpiegitura hauek bizilagunentzat berreskuratzeko ordua da"

Bertan gaztelekua, ludoteka, bizilagunen erabilerarako gelak, heziketa eta informazio esparruak, sorkuntza kultural eta artistikorako aretoak eta Durango elkarte eta plataformentzako gelak bideratzearen aldeko apustua egiten du Julian Rios alkategai duen alderdiak. "Durangoko hainbat azpiegitura gaizki daude eta bada hauek bizilagunentzat

berreskuratzeko ordua. Esparruen eskaintza handitze aldera, Durangok "gune soziokultural baten beharra" duela esan du Rios. Ondoan San Agustingo kultur gunea eta Arte eta Historia Museoa egonda, ingurunea "mi-

lia kultural" bihurtzeko aukera dagoela dio.

Gizarte etxeak

Bestalde, San Fauston eta Aramotzen gizarte etxeak eraikitzeo eskaera gogoratu du Herriaren

Eskubideako bozeramaileak: "Durango zerbitzu soziokulturalak deszentralizatzeko beharra dago". San Fauston Kapitanena baserria eta Aramotzen Pagasarri kaleko 3. zenbakiko etxabea proposatu ditu horretarako.



Ospitale zaharra hutsik dago gaur egun.

Dendak Baik eta Asepeyok hitzarmena sinatu dute, merkataria autonomoei arreta eta formakuntza emateko

Lege aldaketaren eraginez, gizarte segurantzari barik, langile autonomoak mutuetan artatu behar dituzte aurrerantzean

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Aurten praktikan jarri den lege aldaketa baten eraginez, gizarte segurantzari barik, langile autonomoak mutuetan artatu behar dituzte gaitasunen bat edo lan istripuren bat dutenean. Hori dela-eta, Dendak Bai elkarteak eta Asepeyo mutua hitzarmen bat sinatu dute, mutua baliabideak elkarteko merkatariekin eskura ipintzeko. Lankidetzara hori borobiltzeko, formakuntza jardunaldiak eta ekitaldiak ere antolatuko dituzte, lege-aldaketei buruzkoak, kotizazioari dagozkionak zein lan-arriskuen prebentzioaren ingurukoak, besteak beste. Asepeyok Durango duen zentroko zuzendari Igor Sotak eta Dendak Bai elkartearen presidentea Alex Palaciosek sinatu zuten hitzarmena, martitzenean.

Sotak azaldu zuen orientazioa eta aholkularitza jorratuko dituztela merkataria autonomoekin. Dendak Baigaz sinatutako akordio honek "Asepeyok tokiko agenteekin duen konpromisoa" erakusten duela uste du. Dendak Baiko Alex



Ezkerretik hasita, Igor Sota eta Alex Palacio.

Palaciosek esan zuen "autonomoak ahaztu" egiten ditugula sarritan, eta hitzarmena hori saihestera datorrela.

Lankidetzara borobiltzeko, formakuntza jardunaldiak eta ekitaldiak antolatuko dituzte

Sotak azaldu du orientazioa eta aholkularitza jorratuko dituztela merkatariekin

Aukera Azoka prestatzen

Bestalde, Dendak Bai elkarteak Aukera Azoka antolatu du hurrengo astebururako, martxoaren 8tik 10era bitartean. Durangoko hainbat komertzioetako produktuak beharpenekin eskuratzeko aukera egongo da.

Martxan da galdeketa batordea, baina ez dute datarik jarri oraindik

DURANGO • M.O.

Estazioko planari buruzko galdeketa batordea martxan ipini arren, oraindik ez dela datarik jarri kritikatu du Erabaki plataformak. Otsailaren 12an egin zuten lehen batzarra, eta Erabaki plataformak entzule moduan parte hartzeko aukera dauka. Legegile aditu bat kontratatzea proposatu zuen gobernu taldeak, bere iritzia eta aholkuak entzunda galdeketa "bermeekin" egiteko. Baina, Erabakiren ustez, prozesua atzeratzeko "trikimailu" bat da.

EH Bilduk ohartarazi du ez zela deialdirik egon astelehen honetan tokatzen zen batzarrerako

EH Bilduk ere horixe salatu du, eta ohartarazi du ez zela deialdirik egon astelehen honetan tokatzen zen batzarrerako. Hamabostean behin batzartzea adostu zuten otsailaren 12an.

Mugikortasun jasangarriaren aldeko sistemak aurkeztu ditu Irigorasek, Bilbon

DURANGO • M.O.

Durango mugikortasun jasangarriko garatutako sistemak aurkeztu zituen Aitziber Irigorasek joan zen astean, SUM Bilbao 19 biltzarrean. Hain zuzen, sistema horiek eraikitze-

Abiarazitako irtenbide "urbano eta berritzaileen" berri eman zuen Durangoko alkateak

ko eta egonkortzeko xedez abiarazitako irtenbide "urbano eta berritzaileen" berri eman zuen.

Herrian martxan jarritako plan eta neurri anitzak azaldu zituen alkateak, mugikortasun eta airearen kalitate parametroetan oinarrituz. Udalaren arabera, nabarmentzekoak dira, besteak beste: Airearen kalitate Plana (2007-2012), Agenda 21 Plana (2007-2012/2013-2020), Aldaketa klimatikoaren kontrako Plana (2010) eta Mugikortasun Plana (2010-2025).

Jaiotzak gutxitu egin direla-eta, jaioberrientzako diru-laguntzak igo ditu Zornotzako Udalak

Ordenantza berri dute eta 300 euro beharrean 400 euro emango dituzte jaio edo adoptatzen den ume bakoitzeko



Jasotako dirua umeen beharrianetarako erabili behar da eta erosketak herriko establezimenduetan egin behar dira.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Azken urteetan, Zornotzan gero eta ume gutxiago jaiotzen direla-eta, jaiotzak sustatzeko neurriak hartu ditu udalak. Jaiotzengatik banatzen diren diru-laguntzak handitu egin dituzte. Horrela, jaiotzen edo adoptatzen den ume bakoitzeko iaz baino 100 euro gehiago jaso daitezke. Guztira, 400 euro. Jaiotza edo adopzio anizkoitzen kasuan, ume bakoitzeko emango da diru-laguntza. Arlo horretako ordenantza berriua joan zen asteko udalbatzarrean onartu zuten, aho batez.

Jasotako dirua umeen beharrianetarako erabili behar da eta beti ere herriko establezimenduetan egin behar dira erosketak. Honelakoetan, esate baterako: farmazietan, umeen arropa dendetan...

Eskariak udaleko erregistroan aurkeztu behar dira, umea jaio denetik edo adopzioaren ebazpena jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean.

Jaiotzek beheranzko joera

Udaleko iturriek emandako datuek erakusten dutenez, jaiotzek beheranzko joera izan dute Zornotzan azken urteetan. Batez ere, 2012tik hona izan da beherakada. 2012an 211 ume jaio ziren Zornotzan, eta 2018an, ostera, 147. Azken urte bietako datuak ere esanguratsuak dira. 2016an 193 ume jaio ziren. Urte bian %24 jaitzi da jaiotza kopurua. Udaleko iturrien arabera, joera orokorra da eta Euskal Herrian ere beherantz doa jaiotze tasa: 2011n, batez beste 9,69 ume jaio ziren 1.000 laguneko, eta 2018an kopuru hori 7,88ra jaitzi zen.

Eskariak udaleko erregistroan aurkeztu behar dira, umea jaio denetik hiru hilabeteko epean

2016an 193 ume jaio ziren herrian, eta iaz, 147; urte bian %24 jaitzi da jaiotze kopurua

Zornotzarrek 840.000 eurogaz zer egin erabakiko dute 2020ko aurrekontuetan

Iazko kopurua hirukoiztu dute; gaur hasi du udalak proposamenak jasotzeko prozesu parte-hartzailea

ZORNOTZA • J.D.

2020ko udal aurrekontuan jasoko diren inbertsioen %25 herritarrek erabakiko dituzte. Guztira, 840.000 euro. Iazko kopurua hirukoiztu egin dute. Proposamenak, besteak beste, udaleko eta Ametx erakundeko webguneetan egin

ahalko dira, martxoaren 1etik apirilaren 17ra. 16 urtetik gorakoek eta nortasun juridikodunek parte hartu dezakete. Proposamenek udalaren eskumenekoak, interes orokorrekoak eta teknikoki zein ekonomikoki bideragarriak izan beharko dute.

Zirgari sari bat jasoko du Izar enpresak berdintasunean egindako lanagatik

ZORNOTZA • J.D.

Bizkaiko Aldundiak jakinarazi duenez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Zirgari sarietako bat Izar enpresari emango diote aurtun. Sari hauek Aldundiak eta BBK-k banatzen dituzte, Bizkaian emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde ari diren pertsona, entitate eta enpresen artean. Izar-ek *Erantzukidetzeta eta bateratzea* kategorian jasoko du saria. Sari banaketa gala martxoaren 6an izango da.

Bizkaiko Aldundiak banatzen ditu sariak, eta sari banaketa ekitaldia martxoaren 6an izango da

Bestalde, joan zen domekan 50 urte bete ziren Izar nazioartera zabaldu zenetik. Beltracy enpresa belgikarraren bisita batekin hasi zen dena, 1969an. Data hori ekitaldi batez ospatuko dute urtean zehar.



16 urtetik gorako edozein zornotzarrek egin ditzakete proposamenak.

14 AUKERA AZOKA

BEHERAPENAK BAI! SHOPPING!

MARTXOAK 8, 9, 10
DURANGO 2019 Landako Gunea

Ostirala & Larunbata | 10:00-14:00 & 17:00-21:00 | Igandea | 11:00-14:00 & 17:00-19:00

Dendak Bai Merkatarikari Elkarteak 688 738 102 www.dendakbai.eus

durango irratia
TYL SPACES
DURANGO Udalak - Ayuntamiento
Eskariak, aurkezpenak, aho batez
DURANGO Udalak - Ayuntamiento
Dendak Bai durango



Ospitaleko eremuan zabalduko duten espazioa.

Ospitaleko berdegunea erabilgarri dute zaldibartarrek gaurtik aurrera

Ospitaleko eremuko lurak erabilera publikoa izango dute berriro; 3.500 metro koadro erabilgarri egongo dira, udalaren eta Osakidetzaren hitzarmenari esker

ZALDIBAR • A.M.

Urte biren ostean, gaurtik aurrera ospitaleko eremuko lurak zabalik egongo dira herritarrentzat. Martxoaren 1etik aurrera, herritarrek erabilgarri edukiko dute ospitale barruan dagoen 3.500 metro koadroko berdegunea. Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatearen esanetan, lanek hainbat atzerapen izan dituzte Osakidetzaren jarraitzearen ondorioz, eta aurrekontua handitu egin behar izan dute. Izan ere, 110.000 euro baino gehiagoko gainkostua eduki dute obrek. "Hasierako aurrekontua 224.246 eurokoa zen, eta Osakidetzak onartu

110.000 euro baino gehiagoko gainkostua dute obrek; Osakidetzari egozten dio udalak

egin zuen hori. Behin obrak hasita, aldaketak exijitu zituzten, eta, ondorioz, obrak gelditu egin behar izan ziren. Horrek gastua handitu zuen", salatu du Azpitartek.

Adibidez, kontsultategiko atea eta segurtasun langileen garita ez zeuden hasieran onartu zen proiektuan, Azpitarteren esanetan. Azken hilabeteetan, langileek azken ukituak eman dizkiote parkeari, baina, eguraldiaren ondorioz, atzeratu egin behar izan dira lanok. Parkea txukundu, argiteria berria ezarri eta banku berriak

jarri dituzte azken asteetan. Azpitarteren berbetan, parkea oso erabilgarria izango da zaldibartarrentzat. "Epe luzera begira eginiko inbertsioa izan da. Lur eremu hau irabaztea ez da epe motzerako kontua. Urte luzetan disfrutatu ahako dugu zaldibartarrok. Ongizatea eta gainkostuak balantzan jarri eta aurrera egitea erabaki genuen", adierazi du alkateak.

Irisgarritasuna auzitan

Osakidetzaren eta Zaldibarko Udalaren arteko negoziatioetako beste gakoetako bat kontsultategiaren irisgarritasuna izan da. Parke berriak beste sarrera bat egiteko aukera aztertu zuen udalak; hala ere, Osakidetzak atzera bota zuen pro-

posamena, alkatearen esanetan. "Aukera bikaina zen sarrera hobetzeko, baina ez da adostasunik lortu. Etorkezinean, Osakidetzari sarrera hobetu dezan eskatzen ja-

Azpitarteren berbetan, zaldibartarren ongizatea jarri da balantzan gainkostua onartzeko

rraituko dugu", adierazi du. Berdegune berriko eremuan kapera bat eta eraikin bat ere badaude. Horien titulartasuna Osakidetzaren esku dago orain; hala ere, udalak ez du baztertzeko eraikin horien erabilera eskubidea izatea. "Parkea lortuta, hurrengo helburua kapera eta eraikinaren titulartasuna lortzea litzateke", esan du alkateak.



Berdegune berria.

14 urtera jaitsi dute auzotaxia erabiltzeko gutxiengo adina

Baserri auzoetako 35 gaztek erabili ahalko dute zerbitzua

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Hamalau eta hamazazpi urte bitarteko 35 gaztek gurasoen laguntzarik barik erabili ahalko dute auzotaxia. Landa eremuko bizilagunek herriguneetara joatea erraztu gura da neurri honen bidez. Aurretik, dagokion karneta eskatu beharko dute udaletxean. Navarro alkatearen berbetan, jasotako erreklamazio kopuruagatik egin da aldaketa.

"Auzoetatik herrira joateko eskaera asko heldu zaizkigu, eta erabiltzaileen adin tartea jaitea erabaki dugu horregatik", esan du. EH Bilduko Mikel Urrutiak begi onez ikusi zuen aldaketa, auzotarren mesederako delako: "Ondo deritzogu, landa eremuko bizilagunentzat garraio zerbitzu publikoaren gabezia dagoelako". Ordenantzan aldaketa egitea aho batez onartu zuten.



Abadiñoko taxilaria eta Iñaki Rekalde zinegotzia.



Galtzada berreskuratu dute.

Berriozabaletatik San Agustinerako galtzada apurtu dutela salatu dute

Dantzaleku elkarteko kideek kilometro inguruko galtzada berreskuratu zuten auzolanaren bitartez, Elorrión

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berriozabaletako ondarea babes-teko asmoz, Dantzaleku elkarteko kideek eta Berriozabaletako bizilagunek auzolana egin dute azken urteotan. Ia kilometro bateko galtzada berreskuratu, bidea seinaleztatu eta desagertuta zegoen Dantzalekuko gurutzea topatu eta konpondu zuten, besteak beste.

Bada, asteon, elkarteko kideek salatu dute Berriozabaletatik San Agustinerainoko galtzada apurtuta agertu dela. "Baso bat bota dute eta 200 bat metroan galtzada guztiz apurtuta gelditu da", esan dute.

Hori horrela, udaletxean kexa jarri dutela eta herritarrei egoeraren berri eman gura izan dietela esan dute auzokideek.



Herritarrei harrera hobe ematea da zerbitzuaren asmoa.

Martxo amaierarako, Herritarren Arretarako Zerbitzua izango du Berriz udaletxean

Berrizko udaletxeko lehenengo solairuan zerbitzu berri hau jartzeko asmoz, udalak 54.000 euro jarriko ditu

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herritarrei harrera hobe emateko asmoz, Berrizko Udalean Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ) prestatzen dabilta. Orland Isoird alkateak jakinarazi duenez, zerbitzu hau martxo amaierarako martxan egotea da asmoa. "Herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena emateko, udaletxeko beheko aldean zerbitzu guztia ematea planteatzen dugu. Horretarako,

orain arteko harrera gunean hiru bilera gela egingo ditugu", adierazi du alkateak. Lan hauek egiteko, 54.000 euro jarriko dituzte.

HAZ jartzeko, 22.000 euro kooperaziotik "kentzea onartezina" dela kritikatu zuen EH Bilduk

EH Bildu, kritiko

Azken bilkuran, EH Bildu kritiko agertu zen HAZ jartzeko erabilitako diruagaz. "Onartezina da kooperaziotik 22.000 euro kentzea. Ez dago ezer egiteko kooperazioan?", galdetu zuen Karmen Amezuak. "Guri galdetu izan bazenigute, hainbat proiektu proposamen ekarriko genituzke", jarraitu zuen EH Bilduko bozeramaileak. Gaineratu dutenez, ez dute HAZ mesprextatzen, baina proiektuaren inguruko nondik norakorik ez zekitelarik kritikatu zuten.

Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Salón de belleza
Mª Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
☎ 946 81 43 89

Belardenda eta dietetika

OSASUN - ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA
40 urte baino gehiagoko esperientzia

PISUA KONTROLATZEKO NOVALINE METODOA
INFORMAZIO-BISITA, DOAN
+ OPARIA

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA
Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
☎ Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
f Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Amaia Salazar
Nukleo

NUKLEO | Ilearen zainketa ez da berdina izaten bizitzako etapa anitzetan. Emakume baten bizitzan etapa garrantzitsua da haurdunaldiarena, eta egoera horretan zein erditu ostean ilean zein eragin izan ahal diren aztertu du Salazarrek.

Haurdun dauden emakumeek eragozpenik izaten al dute ilean?

Ez, haurdunaldian ez. Erditu eta hiru edo lau hiletara jausten da ilea. Izan ere, ilea inoiz baino hobeto egoten da haurdunaldian. Ez da zikintzen, distiratsu egoten da, ile gehiago edukitzen da...

Zergatik da hori?

Teoria bat dago hori azaltzeko. Haurdunaldiko egunerokoan, jausi beharreko ilea ez da jausten, eta horregatik izaten dugu ile gehiago eta osasuntsuagoa.

Beraz, gerora jausten da ilea?

Bai. Umea jaio eta hiru bat hiletara, haurdunaldian jausi ez den ilea hasten da jausten. Jausitakoa, dena batera ere jausi daiteke. Zerbait hormonala da. Nahiko orokorra da, eta, normalean, ilea bere kabuz hazten da berriro.

Zerbait egin ahal da erorketa hori saihesteko? Edo errekuperazioa indartzeko?

Bularra emanez gero, epe horren bitartean ezin dira bitaminak hartu. Nik zerbezaren legamia proposatzen dut; ona da ilerako, eta baita bularrerako ere.



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



DJ Txurrukagaz eta Gauargi erromeria taldeagaz dantzaldiak antolatu dituzte

MALLABIA • J.D.

Mallabiko kultura batzordeak antolatuta, erromeria bigaz gozatzeko aukera egongo da datozen egunetan Mallabian. Zapatu honetan, Gauargi taldea

Zapatu honetan eta hurrengo martitzenean izango dira kontzertuak, Mallabiko plazan

igoko da plazako agertokira, 20:00etan. Datorren asteko martitzenean, berriz, DJ Txurrukak jarriko du musika plazan, 16:30ean hasita. Ordu bererako, txokolatada bat antolatuko du gurasoen elkarteak.

Urteko kontuak onartzeko batzarra prestatzen dabil jubilatuen elkartea

IZURTZA • J.D.

Erdotza Ama jubilatuen elkarteak urteko batzarra egingo du laister. Martxoaren 17ko domekan izango da, 12:00etako mezaren ostean. Batzordekideek ez dute batzar luzerik espero, ez delako zuzendaritza aldaketarik egokitzen. Urteko kontuak azaldu eta bozkatuko dituzte, eta kuota igotzea komeni den ala ez eztabaidatuko dute, Karmelo Irastorza elkarteko kideak azaldu duenez.

Bizilekuak egiteko hiru gune identifikatuta, Otxandioko Udala Eusko Jaurlaritzaren proposamenaren zain dago

Alokairu sozialen eraikinetako bat zinema zaharrean egiten bada, beheko solairuan anbulatorio berria joango litzateke



Gaur egungo gaztetxearen parean dago sasoi batean zinema zegoen orubea.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Udalak alokairu publikoko etxebizitzak sustatu gura ditu herrian, eta arlo horretako hitzarmena lantzen du Eusko Jaurlaritzagaz. Orain, Jaurlaritzaren proposamenaren zain daude.

Etxebizitzak egiteko aproposak diren hiru gune identifikatu dituzte: zine zaharra zegoen partzela, Elizabarriko sarreran dagoen zelaia eta gaur egungo kontsultorioko parkea. Litekeena da Jaurlaritzako proposamenak lehenengo aukera biak —zine zaharreko partzela

eta Elizabarriko zelaia— hobestea lehenengo fasea aurrera eramateko. Horrela bada, aukeratuen artean zine zaharreko lursaila badago, eraikin berriko beheko solairuan anbulatorio berria joango litzateke, udal arduradunek azaldu

Kontsultorio pareko parkea eta Elizabarriko zelaia dira etxeak egiteko beste gune bi

Anbulatorio berria lehenetuen artean dagoela jakinarazi die Eusko Jaurlaritzak

dutenez. Jaurlaritzatik ere anbulatorio berria lehenetuen moduan ikusten dutela jakinarazi diete.

Epeak

Honako hauek dira etxebizitzaren proiektua gauzatzeko udaletik

aurreikusten diren epeak: 2019an zehar egitasmoa onartuko dute, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluan zein Otxandioko plenoan. Horren ostean, 2020an proiektua lizitatuko litzateke. Azkenik, etxebizitzak hartuko lituzketen eraikinak egiteko lanak 2021ean hasiko lirateke.

Etorkezun hurbilean alokairuzko etxe batean bizitzeko interesa duten herritarrei Alokabiden izena emateko deia egin dute udaletik. Horrela, arlo horretan Otxandion dagoen benetako eskaria neurtu ahalko lukete.

Udalak laister lizitatu gura du Garaiko pilotalekua albotik zarratzeko proiektua

118.000 euroko aurrekontua dauka, baina arkitektoaren lana zein koordinazio gastuak gehitu behar zaizkio

GARAI • MARKEL ONAINDIA

2019ko inbertsio nagusia izango da pilotalekua albotik zarratzea, eta dagoeneko ezarrita dute proiektua osatzeko diru kopurua. Gero, lizitazioa atera gura dute laister, eta obra aurten burutzea da helburua.

Iazko azaroan Herriko Taldeak eta EAJk aho batez onartutako udal aurrekontuko ideia garrantzitsua da. Egitasmorako, 131.000 euro aurreikusi dituzte. 118.000 euroko aurrekontua dauka, eta horri arki-

tektoaren lana zein koordinazioaren gastuak gehitu behar zaizkio. Diru kopuruari aurre egiteko, diru-laguntza eskatuko du udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren men-

Diru-laguntza eskatuko du udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko Azpiegitura Sailean

peko Azpiegitura Sailean. Iaz, esaterako, 26.000 euro jaso zituzten pilotalekuko teilatua konpondu zutenean. Aurrera begira, beste sail batzuetan ere sortu daitezkeen diru-laguntza deialdietan parte hartzeko asmoa du udalak.

Aterpea eduki arren, eskumako aldea zabalik duen pilotalekua da Garaikoa. Ondorioz, eguraldi txarra egiten duenean, igartzen da eragina: euria, haizea... Pilotalekuan dabilentzat kaltegarria da, eta baita herriko ekintza kulturaletarako aprobetxatzen dutenentzat ere.



Eskumako aldetik libre dago Garaiko pilotalekua.

Kirolgunea umeen eta gazteen aisialdirako materialagaz hornitzeari eman diote lehentasuna mañariarrek

Azpiegiturak zelan hornitu erabakitzeke bozketan 46 lagunek parte hartu zezaketen eta eurretatik 30 herritarrek bozkatu dute Mañarian

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Kirolguneko gune bakoitza hornitzera zenbat diru bideratu erabaki dute herritarrek euren botoa emanda. Botorik gehien umeen eta gazteen aisialdi jardueretarako materialak jaso du. Beraz, 5.000 euroko diru atalik handiena horretara bideratuko dute. Erabilera anitzeko mahai bat erosiko dute, xakean, ping-pongean eta antzerako jokoe-tan aritzeko. Ez da aukeren artean

Erabilera anitzeko kiroleterako mahai bat jarriko dute frontoiaren kanpoaldeko aterpean

zegoen azpiegiturarik garestiena. Beraz, frontoiaren kanpoaldeko aterpe berrian egongo den gunea hornituko dute lehenengo, eta dirua sobratzen bada, beste azpiegiturara bideratuko dute.

Bozketako bigarren tokian kirol ekintza orokorra egiteko materiala geratu da. 2.500 eurogaz koltxonetak, pilota handiak, luzaketak egiteko sokak eta antzerakoak erosiko ditu udalak. Azkenik, 1.500 euro umeen psikomotrizitate eta jolas librerako materiala erostera



Frontoiaren kanpoaldean egiten ari diren aterpean jarriko dituzte umeentzako azpiegiturak.

Diru atal nagusitik sobratzen dena gainerako azpiegiturara bideratuko du udalak

bideratuko dituzte, eta 1.000 euro zirkuko aireko gimnasiako zein kirol alternatiboetako materialetara.

Modu batera edo bestera egitasmoarekiko interesa erakutsi duten herritarrek parte hartu zezaketen bozketan: proposamenen bat egin dutenak, batzarretara joan direnak

Modu batera edo bestera egitasmoarekiko interesa erakutsi dutenek parte hartu zezaketen bozketan

edo aurretik izena eman dutenak; guztira, 46 herritarrek. Astebeteko epean, udalak hainbat bide zabaldu ditu botoa emateko, eta 30 herritarrek erabili dute euren eskubidea. Herritar batzuek proiektua aurkezteko egin zen batzarra aprobetxatu zuten bozkatzeko.

Martxoaren 21ean jaialdi batez inauguratuko dute Amillena, Arrazolako eskola zaharrean jarri duten taberna

Tabernari azken ukituak emateko asmoz, hilaren 16 eta 17rako auzolanera deitu dute Amillenako kudeatzaileek



Eskola zaharra zegoen eraikinean, orain taberna bat egongo da.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2016an Atxondoko herritarrek Arrazolako eskola zaharrean taberna eta denda txiki bat egitea erabaki zutenetik, eraikina egokitzen ibili dira. Taberna honen ezaugarri nagusietako bat hainbat lan auzolanean egin dituztela da.

Azken urteotan Atxondoko Udalaren proiektu nagusienera bat izan dena gauzatu da dagoeneko eta martxoaren 21ean

Kudeatzaileen berbetan, ama lurragaz konexio berezia duen herri proiektua da Amillena

jaialdi batez inauguratuko dute Amillena taberna.

Tabernako kudeatzaileek jakinarazi dutenez, martxoaren 21ean euren proiektuaren berri emango diete Arrazolara doazenei. Euren berbetan, taberna edo jatetxe bat baino gehiago da Amillena, ama lurragaz "konexio berezia" duen herri proiektu bat.

2016az geroztik eskola zaharra egokitzen ibili dira, bertan taberna bat jartzeko asmoz

Auzolana martxoan

Bestalde, Amillena proiektua eratzten duten hiru neskek auzolanera deitu dute martxoaren 16 eta 17rako, eta gura duten herritarrei bertaratzeko deia egin diete. Auzolan horien helburua Arrazolako eskola zaharri azken ukituak ematea eta martxoaren 21erako dena prest edukitzea izango dela jakitera eman dute.

Hareek denporak!**Zaldibarretik Durangora zurezko hegazkin batez**

Bihartik aurrera, inauteriak ospatuko dira han eta hemen. Mozorroak jantzi eta kaleak kolorez janzteko momentua izango da.

Aste honetan berreskuratu dugun argazkia 1934an Durangon ateratakoa da. Berrizko eta Zaldibarko gazteen konpartsak zurezko hegazkin bat egin zuen kamioi baten gainean. Hegazkina egiteagaz nahikoa ez zutela, karnabaletan "abentura-

txo" bat izatea erabaki zuten. Zurezko hegazkinaren egileek Zaldibarretik Durangora joatea erabaki zuten, Berriz, Elorrio, Atxondo eta Abadiñotik pasatuta. Durangora heldu zirenean, hainbat durangarrek ongietorria egin zieten.

Gainera, ibilbidean zehar bertsoak kantatu eta dirua eskatu zuten, abenturaren gastuak ordaindu eta merienda bat egiteko. **M.Z.**



FOTO GERMAN.

Politikan

Pilar
Rios Ramos
PSE-EE



Dudarik gabe, Durango hobetu egin da, baina... Amankomunazgoa zer? Nik ezetz esango nuke.

Orain dela aste batzuk, EH Bilduren bideo bat ikusi genuen, konpondu eta erabili gabeko eraikinak dauzkagula kritikatu.

Burura etorri zitzaidan lehenengo kontua legealdi honetan lortzen ari garen guztia izan zen. Hainbat zerbitzu abian jartzeari lehentasuna nola eman ahal izan diogun gogoratu nuen: adinekoentzat (jantoki-zerbitzua, etxez etxeko janaria, tailer psiko-sozialak auzoetan), emakumeentzat (Andragunea, ahalduentzako eskola, indarkeria matxistaren aurkako herritarren arteko ituna, EraStop APPa, zeharkako izaera udal-politiken erdigunean kokatzea), gazteentzat (txandakako apartamentuak), auzoetarako (Aramotz erabat eraberritzeko ituna, eta Montevideoko gaztetxea eraisteko hitzarmena).

Burura etorri zitzaidan bigarren kontua hau izan zen: nola egin behar du bultza Durangok beste erakundeek artatzen ez dituzten beharrei erantzuteko. Horren adibide argi bat gizarte-larrialdiko etxebizitzaren eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumezkoen ostatu emateko etxeen zerbitzua da. Bederatzi dauzkagu, eta horiekin Durangaldeko eskualde osoa artatu behar dugu.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubiak gobernatzeko duen Amankomunazgoak eskaini beharko lukeen zerbitzua da, baina lau urtean ez du hornitu. Aitzakiaz jartzen dute Elorrioren etxebizitza bat dutela, baina ez dagoela konponduta. Batzuek, beharbada, han ere grabatu beharko lukete bideoren bat, edo Amankomunazgoan, ez baitakigu ondo zer egin duten legealdi osoan zehar.

Non gelditu dira Amankomunazgoaren enplegu politikak? Eta eskualdeko turismoa bultzatzeko haien proposamenak? Zer gertatzen da etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin? Erraz ikusten da lasto-izpia ondokoaren begian, eta norbere begian haga ere ikusi ezin.

Durangaldea asteen**Hontza Museoak 'Aztertu zure ingurua bost zentzumenekin' tailerra egingo du**

Mañaria | 'Aztertu zure ingurua bost zentzumenekin' izeneko tailerra 7 eta 11 urte arteko gaztetxoek bideratuta dago. Martxoaren 9an izango da, 10:30etik 13:30era. Kalean egingo den ekintza da. Parte hartzen dutenek arkatza edo boligrafoa, margoak eta euskarri bat —karpeta, esaterako— eramane beharko dituzte. Plazak mugatuak dira eta izena emateko ordena hartuko da kontuan. Interesatuta daudenek info@hontzamusoea.eus helbidean eman dezakete izena. Tailerraren prezioa bost euro da.

Durangaldeko hamar enpresari kalitate turistikoaren saria eman diete

Durangaldea | Alluitz Natura, Durangoko Turismo Bulegoa, Eguzki B&B ostalua, Elorrioko Turismo Bulegoa, Garaiko Landetxea, Karteruena Landetxea, Lurra Adventure, Oka Landetxea, Saltsan katerin eta Sinergia 43° izan dira saria jaso duten enpresak. Urkiola Landa Garapenerako Alkartek ere diploma bereizgarri bat jaso du. Durangaldeak Basquetourrek sustatutako turismo kalitatearen jomugetan oinarritutako SICTED lehiakortasun programan parte hartu zuen 2018an, lehen aldiz.

**Iritzia**

Lau haizetara aldarrikatu nahi dugu justizia: Jon Ander, Jokin, Julen, Adur, Aratz, Iñaki eta Oihan aske gelditu arte!

Hori izan zen urte berriari eskatu geniona. Eta urte berriak Jon Anderri eta Juleni ukatutako 6 lekuko onartzea ekarri zigun apelazio-epaiketan. Urtearrilaren 23ko bistan, San Fernando de Henareseko Audientzia Nazionalen lekuko guztiek ukatu zuten Jon Ander Koxka tabernan egon zela istiluak gertatu zirenean.

Lekukoen artean, A-ren testigantza oso garrantzitsua izan zen. Zergatik? Berak ikusi zuelako taberna barruan gertatutakoa, baina hori ez ezik, gertakariak jazo zirenean tenientearen bikotekidearen (M.J.-ren) laguna zelako.

A-k esan zuen M.J.-rekin egon zela taberna barruan gau hartan, eta ez zuela agresiorik ikusi, txupito edalontziak hegan egiten baino ez. Eta, kalera atera zenean, tenientea lurrean ikusi zuela eta bere ondoan zegoen lagunari laguntza eskaini ziola, baina M.J.-k laguntza ukatu ziola; eta ez ziola erantzun hurrengo egunean bidali zion mezuari.

M.J.-k, berriz, kontrakoa adierazi zuen epaiketan, besteak beste: bortizki jipoituak izan zirela taberna barruan, eta inork ez ziela lagundu. Kontua da, A-k ez ezik, testigantza eman duten testigu guztiek ez zutela jipoi basatirik ikusi, eta bi agenteek eta haien bikotekideek kontatutako "errelatoa" ezin izan dutela egiazki frogatu.

Hala eta guztiz ere, gazte batzuek 2 urte baino gehiago daramate kartzelan, eta beste batzuek 9 hilabete egingo dituzte laster. Bitartean, gu lur jota gaude, ez baitugu ulertzen nola eman diezaioketen oraindik balioa agenteen eta neska-lagunen "kontakizunari". Zein interes dago atzean? Dagoeneko, ez ote da nahikoa ordaindu?

Apelazioaren zain gaude, triste gaude, asko sufritzen ari baikara, baina baditugu motiboak berri onak jasotzeko. Ez dakit orain jasoko ditugun, horixe nahi eta behar dugu: hiru hitzetan, justizia eta egia aiton-amonaren egonezina. Altsasukoak aske!

Mila Salgado, Jon Anderren amama.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER

DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

uxarte

SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com



ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

MAR TXOAK 8

ANBOTOKO EMAKUMEOK MARTXOAREN
8RAKO DEITUTAKO GREBAGAZ BAT
EGINGO DUGU. ONDORIOZ, HURRENGO
ALEA MARTXOAREN 9AN, ZAPATUAN,
KALERATU ETA BANATUKO DUGU.

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Zaintza lana, soldata arrakalaren icebergaren tontorra

Zaintzan dabilzan beharginen %95 emakumeak dira. Prekaritatea da zaintza ogibide duten emakumeen ezaugarri komuna, eta begien bistakoa da generoaren araberako arrakala

MS • JONE GUENETXEA

Martxoaren 8ko grebak gai bat azaleratu eta erdigunean jarri gura izan du: zaintza. Izan ere, zaintzan dabilzan emakumeak daude generoaren arabera ezarritako soldata arrakalaren alderik prekarioenean. Zaintzaileek lan ikusezina egiten dute eta sistemak ez ditu baloratzen.

Estatu espainiarrean, 630.000 emakume (sektorearen %95) etxeko langileak dira. Horietatik %42 etorkinak dira. Lege aldetik, lan merkaturan babes gutxien duen arloa da. Askok ez daukate kotizaziorik, eta kotizatzen dutenak oso urrun daude beste langileen baldintzetatik. "Etxeko langileen gizarte segurantzaren beste langileena baino askoz ere baxuagoa da. Ondorioz, istripu bat dutenean edo gaixotzen direnean, beste edozein langilek baino gutxiago kobratzen dute", salatu du LAB sindikatuak.

Alderdi politikoei etxeko langileen lan baldintzak hobetzeko pausoak emango dituztela esan izan duten arren, bestelako langileekin kotizazioaren ekiparazioa eragingo

630.000

etxeko langile
daude lanean estatuan.
Horietatik %95
emakumeak dira

lukeen legearen onarpena orain dela gutxi atzeratu dute, 2024. urtera.

Soldata arrakala sistemak duen tresna dela dio LABek, emakumeen lanari "balioa kentzeko". Beste era batera esanda, sistemak lanari ematen dion balioa ezberdina da, emakumeek edo gizonek egin.

Egoitzetako langileak

Zaintzan dabilzan egoitzetako beharginek ere urteak daramatzate euren lan baldintzen alde. 2016an hasita, Bizkaiko zaharren egoitzetako langileek kaleak hartu zituzten, urte eta erdiz. Hainbat mobilizazio antolatu zituzten Euskal Herri

**“Hainbat eskaera lortu arren,
oraindik arazoa dugu ratioekin”**



DURANGO • J.G.

Pilar Mazaga Azpitartek (Durango, 1954) Zornotzako Orue egoitzan lan egiten du. Jubilatzeo gutxi falta zaio, eta gaur egun zaintzaren eta matxismoaren artean dagoen lotura estuaz gogoeta egin du.

Noiztik ari zara zaintzan lanean?

18 urte daramatzat. Laster jubilatuko naiz.

Azken urteotan egoitzetako zaintzaileak mobilizatu egin zarete zuen lan baldintzak duintzeko. Zein egoera bizi duzue?

Greba oso luze eta gogorra egin genuen. Batzuek ez zuten greba egin, eta tentsioa sortu zen. Hala ere, lortu genuena denontzat izan dela esaten dugu orain. Soldatan asko galdu genuen sasoi hartan. Hainbat eskaera lortu ditugun arren, oraindik arazoa dugu ratioekin. Aldundiak jartzen dituzte ratioak. Zergatik dituzte ratio ezberdinak Aldundiaren egoitzek eta gurek?

Ratio horiek zein eragin dute egunerokoan?

Ratioek zerikusia dute kalitateagaz, bai langileontzat eta baita nagusientzat ere. Horiek zehaztea Aldundiaren esku dago.

Grebalaririk gehienak emakumeak zineten. Izan zuen horrek eraginik negoziozietan?

Zalantzarik barik. Uste dute emakumeok otzanak izango garela egoera horretan. Amaitu da hori. **Zuek egiten duzue lana baloratzen da sozialki?**

Orokorrean, ez da baloratzen. Baina, gure lana gertutik ikusita, nagusien senitarteko batzuek

baloratzen dute. Hau lan oso gogorra da. Aldi berean, poza ematen dizu askotan. Baina horretarako bokazioa izan behar duzu. Ikusten dudana da belar-naldi berriak ez datozela jarrera horregaz. Inork ez du etorri gura egoitzetara. Ratioak hain justu ditugunez, zoroen moduan ibiltzen gara lanean.

18 urte ELAko delegatu lez, hamaika egoera biziko zenituen.

Lehenengo lan hitzarmenean, patronaleko batek esan zidan: "Baina zuek zergatik kezaten zarete, egiten duzuen bakarra ipurdiak garbitzea bada?". Hori entzunda, argi dago ez dela gure lana baloratzen.

“

'Baina zuek zergatik kezaten zarete, egiten duzuen bakarra ipurdiak garbitzea bada?', esan zidaten"

Sozialki aldaketa gertatu beharko litzateke arlo honetan?

Sistema aldatu beharko litzateke. Ni orain 18 urte lanean hasi nintzenetik gaur egunera arte, gauzak asko aldatu dira. Lehen, denbora gehiago izaten genuen nagusiekin egoteko. Ildo horretatik, atzerantza egin dugu, nabarmen. Gainera, lehen, osasuntsuago etortzen ziren egoitzetara. Gaur egun, nagusiek atentzio gehiago behar dute.

osoan, baita Durangaldean ere. "Emakume langileen borroka eta zaintzaren gaia agenda mediatikoaren erdigunera ekartzea lortu zuen grebak", azaldu dute ELA sindikatuko ordezkariak. Gaineratu

ELA: "Egoitzetako grebak zaintzaren gaia agenda mediatikoaren erdigunera ekartzea lortu zuen"

dutenez, "sektore prekarizatu honetako langileentzat hobekuntza nabarmenak lortzen lagundu zuen grebak, eta baita gizartean langileklaseari dagokionez oraindik nagusi den imajinario maskulinoan arrakala bat zabaltzen". Langile borroka eta borroka feminista uztartu egin ziren.

Pilar Mazaga eta Julieta Tomaláren gogoetak zaintza arloan bizi duten prekaritatearen isla dira. Euren lanak "errespetua eta baloratua izatea" merezi duela uste dute biek.



Egoitzetako langileek hitzarmena sinatu osteko argazkia.

“Legeak aldatu egin beharko lirateke; errespetu gehiago merezi dugu”

IURRETA • J. G.

Familia Ekuadorren utzita, lan bila etorri zen Julieta Narcisa Tomalá Díaz (Ekuador, 1960) Euskal Herrira, lurretara. Gaur egun, etxeko langilea da Eibarren. Barneko langile moduan egiten du lan pertsona nagusi bat zaintzen.

Zelan erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea?

Lehengusu bat hemen bizi zen eta gonbidapen gutuna bidali zidaten. Hau ezagutzera etorri nintzen, lan bila. Nire herrialdean egoera oso gogorra zen eta familia bertan utzita hona etortzea erabaki nuen. 19 urte daramatzat hemen dagoeneko. Oso harrera ona egin didate **Seme-alabak Ekuadorren gelditu ziren.**

Bai. 38 urte gaz etorri nintzen eta lau seme-alabak han gelditu ziren. Gazteenak 17 bat urte zituen. Hasieran, diru apur bat bidaltzen nuen, baina hemengo lan egoerak ez du ematen diru asko bidaltzeko. **Etxeko langileen arloan, prekaritatea da nagusi?**

Egoeraz aprobetxatzen den jende asko dago. Ez dizkigute ordu

libreak ematen eta soldata ere baxua da, orokorrean. Nire kasuan, emakume nagusi bat zaintzen nabil eta egun osoa ematen dut beragaz, barneko langile moduan. Zapatuetan libre dut, baina domeka gauean berriro sartzen naiz lanera.

Beste lan esperientzia batzuek izango zenituen.

Euskal Herrira heldu nintzenean, familia oso atsegin batean hasi nintzen lanean. Nire gustuko janaria ere erosten zidaten, gustura egon nedin.

Zuen lana baloratzen da?

Hona etorri nintzenean, zorte handia izan nuen tokatu zitzaizdan familiagaz. Hala ere, orokorrean,

“

Ez dizkigute ordu libreak ematen eta soldata ere baxua da”

■



lan hau ez da batere baloratzen. **Emakume askoren egoera aprobetxatzen dute lan esplotaziorako?** Bai, horrelako kasu asko daude. **Lege aldetik ez duzue babesik.** Legeak aldatu egin beharko lirateke. Uste dut errespetu gehiago

merezi dugula. Nik fabriketan ere lan egin dut, eta hau gogorragoa da. Fabriketan, behintzat, 10 minutu dituzu ogitartekoa jateko. **Bitzita sozialerako aukera gutxi izango duzu.** Zapatuetan irten eta hortxe dut

denbora apur bat, besterik ez. **Zer egin daiteke etxeko langileen lan baldintzak hobetzeko?** Begirune apur bat izatea ondo legoke, batez ere barneko langileentzat. Denbora librea izatea garrantzitsua da.

Aukera berdintasunaren alde, herriko kaleak hartu eta milia bat korrika egingo dute Iurretan

Berdintasun Sailak, Gu Be Bai Runners taldearen laguntzagaz antolatu du herri lasterketa, martxoaren 9rako, eta morez jantzita parte hartzera deitu dute

LASTERKETA • AITZIBER BASAURI

Martxoaren 9an, herriko kaleak hartu eta aukera berdintasunaren alde milia bat korrika egingo dute iurretarrak. Martxoaren 8aren harira, Milia Morea antolatu du udaleko Berdintasun Sailak, Gu Be Bai Runners taldearen laguntzagaz. Askondo kalean ipini dute hitzordua, 12:00etan.

Parte hartze hutsak korrikalari guztiak irabazle egiten dituen herri lasterketa hau herritar guztiei dago zabalik; emakumeek zein gizonek, umek zein nagusiek parte hartu dezakete eta guztiak dute aukera morez jantzi eta aldarrikapenerako tartea hartzeko. Antolatzaileek azaldu dutenez, gero eta parte-hartzaile gehiago batzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako ekimenak.

Ibilbidea

Askondo kaletik irtengo da lasterketa. Bixente Kapanaga kalerako bidea hartuko dute korrikalariak gero, eta tunelaren gainetik buelta

eman ostean, kale beretik abiapuntura joango dira berriro. Azken zatia Zubiaurre kaletik egingo dute. Birritan egingo dute ibilbidea, eta milia bat osatuko dut guztira.

Askondo kalean hasiko da lasterketa, 12:00etan, eta Bixente Kapanaga kalerako bidea hartuko du

Emakumeak eta gizonak arlo guztietan berdinak direla aldarrikatzea du helburu ekimenak

Emakumeek kirola egitea sustatu gura duen Gu Be Bai Runners taldeko Iraia Garciak azaldu duenez, emakumeak eta gizonak arlo guztietan berdinak direla aldarrikatzea du helburu Milia Moreak, eta, aldi berean, kirola egitea sustatzea. Laugarrenez antolatu dute proba.



Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko korrikaldiak hainbat herritar batu zituen iaz Iurretan.

Martxoak 8 Iurreta

Otsailak 19 - Martxoak 12
TXORI BATEK ESANDA DAKIT (TBED!)... GENEROA!

Maiztegi Herri Eskolako HH5etik LH6ra bitarteko haur eta gazteei zuzendutako literatur saiokak.

Martxoak 4, astelehena
18:00 **Emakumeen Literatur Tailerra**

ESCRITORAS INGLESAS
Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika). Aurretiaz izena eman. Ibarretxe Kultur Etxea

Martxoak 5, martitzena

17:00 **Adinkeria**

Emakumeen zaharalduntze tailerra
Dinamizatzailea: Nerea Fernandez (Bizitzaren Fundazioa). Aurretiaz izena eman. Ibarretxe Kultur Etxea.

Martxoak 6, eguaztena

10:00 **XL KLUBA**

55 urtetik gorakoentzat. Aurretiaz izena eman. Ibarretxe Kultur Etxea.

18:30 **Emakumeak eta literatura**

Berbaldia: "Encuentro con Arantxa Urretabizkaia"
Dinamizatzailea: Josune Muñoz (Skolastika). Ibarretxe Kultur Etxea.

Martxoak 7, eguena

18:15 Tartak aurkeztea

19:00 Adierazpen Instituzionalaren irakurketa. Ondoren tarta dastaketa eta sari banaketa. (Dastaketan parte hartzeko izen ematea martxoak 7ra arte)

Martxoak 8, barikua
Emakumeen Nazioarteko Eguna

12:00 **Kontzentrazioa: Bizitzak erdigunera!** (Mugimendu Feminista)
Askondon

Martxoak 9, zapatua

12:00 **Milia Morea (herri lasterketa)**

Berdintasunaren alde.
Dinamizatzaileak: Iraia Garcia eta GU BE BAI RUNNERS. Herrigunetik zehar.

14:30 **Bazkaria** (Izen ematea-bxartelak salgai martxoak 6ra arte)

14:30ean autobusa egongo da (Correos)

19:00 **Aurkezpena: Emakumeen txirrindulari taldeak (Iurreta Furesa eta CAF Turnkey Engineering)** Askondon

Martxoak 14, eguena

19:00 **Antzerkia "Sex o no sex"**

Ibarretxe Kultur Etxea. Helduentzako.

Martxoak 15, barikua

17:00 **Antzerkia "Futbolariak eta printzesak"**

Ibarretxe Kultur Etxea. Haurrentzako.

IZEN-EMATEAK ETA TXARTELAK:

Ibarretxe Kultur Etxea
gizarte-ongizate@iurreta.eus
94 621 53 72

Goiuria Kultur Gunea
Anderebide Emakumeen Elkarte
Ostegunetan 18:00etatik 19:30era
616 490 506

Greba feministarako ekintzak prest dituzte hainbat herritan

Durangon, Elorrioren eta Zaldibarren gauerdian bertan hasiko dituzte greba eguna berotzeko ekintzak, eta Zornotzan bariku goizean elkartuko dira



Iaz, ehunka emakume irten ziren kalera greban. Argazkian, Durangoko goizeko mobilizazioa.

GREBA • MARKEL ONAINDIA

Durangon gauerdian emango diete hasiera greba eguneko ekintzei, Kurutzia kaleko horma bat margotuta. 08:00etan kazerolada egingo dute, eta 12:00etarako, *Lurrikara feminista* mobilizaziora deitu dute.

Elorrioren gauerdian hasiko dira, kazerolada batez. 11:00etan errezitaldia egingo dute, 12:00etan manifestazioa, arratsaldean tailerrak eta gauean kantaldia. Zornotzan kafe tertulia egingo dute 11:00etan, 12:30ean kontzentrazioa eta bazkalostean kantaldia. Zaldibarren kazerolada batez hasi eta gaua batera pasatzea proposatu dute; 11:00etan tailerrak, 12:30ean emakume-katea, arratsaldean jolasak eta gauean filma gatzetxean.

Abadiñon, goizean, kafe tertulian batuko dira, eta 12:00etan manifestazioa egingo dute Zelaietan eta Muntzaratzen. Arratsaldean, Traña-Matienan egingo dute manifestazioa eta 18:30ean kalejira joango dira Durangora.

Herri denetan bazkari autogestionatuak egingo dituzte.

ERAKUSKETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hilekoa plazara ateratzeko asmoz, hainbat gune dituen erakusketa antolatu dute Elorrioren. Erakusketaren bultzatzaile eta Elorrioko kultur teknikaria den Josune Arangurenen berbetan,

Arangurenen berbetan, erakusketaren asmoa hilekoa tabu dela ikustaraztea da

patriarkatuaren ondorioz hilekoa tabu dela ikustaraztea da ekimenaren asmoa, besteak beste. "Tabu egoera hori emakumeok nola bizi dugun azalatu gura dugu, eta feminismoaren ikuspuntutik nola interpretatu behar den", adierazi du Arangurennek.

Martxoaren 7an inauguratuko da erakusketa, 19:00etan, eta honako guneak izango ditu: lehenengo aldia, gorria euskararen, eskandaluaren horma, hilekoa artean, hilekoak emakume egiten gaitu?, ikus eta entzun ezazu hilekoa, eufemismoak, etorri ein xata, tasa arrosa eta ziklikoki.

Martxo osoan ikusgai egongo den erakusketa kultura dela aitortu du Arangurennek, ondarea dela.

Hilekoa tabu dela ikustarazteko asmoz, erakusketa antolatu dute Iturri Kultur Etxean

Martxoaren 7an inauguratuko dute erakusketa, 19:00etan, eta hilabete osoan zehar egongo da ikusgai Elorrioren



Josune Aranguren Iturri Kultur Etxean

25 taldek eman dute izena Durangoko abesti feministen lehiaketan

MUSIKA • MARKEL ONAINDIA

Udalak antolatutako abesti feministen lehiaketaren bigarren edizioa egingo da aurten, eta 25 taldek eman dute izena. Epaileek gaur iragarriko dute zeintzuk izango diren finalistak, martxoaren 9an (19:00) Andra Marian egingo den kantaldian parte hartuko dutenak.

Usue Martinez abeslari durangarra lehiaketaren antolakuntzan dabil, eta aurkeztutako lanen maila

nabarmendu du. "Lan zaila izango dute aurten epaileek. Iaz maila handia egon zen, baina aurtengoa handiagoa da oraindik", azaldu du.

Usue Martinez: "Iaz maila handia egon zen, baina aurtengoa handiagoa da oraindik"

Aurkeztutako 25 taldeetatik, 5 dira Durangokoak. Letra feministak sortuz, gazteengan eragin gura dute antolatzaileek.

Bestalde, martxoaren 8ra bitartean publikoaren saria egongo da jokoan. Durango Herri Akordioaren Facebookeko profilean jarriko dituzte musikarien bideoak, eta gustukoenerari atsegin dut emanda bozkatu ahalko da. 500 euroko saria dago, lehiako onenarentzat lez.



Iaz izan zen abesti feministen lehiaketaren lehen edizioa.

'Bakean dagoena, Bakean utzi' antzezlan, hilaren 14an

Martiarena eta Torregarai tabernarik taberna ibiliko dira euren antzezlan plazaletan, 20:00etan

ANTZERKIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai *Bakean dagoena, Bakean utzi* antzezlan antzeztuko dute Elorrioko tabernetan, martxoaren 14an. Sei bakarrizketa batzen ditu antzezlanak, eta euskara eta generoa gaitzat hartuta, eus-

kalkiak, amatasuna, hilekoa, eta depilazioa izango dituzte hizpide, besteak beste.

Antzezlan honegaz, Martiarenak eta Torregarai ez daukate gogorik bakean dagoena bakean uzteko, eta euskaraz barre egin daitekeela frogatu gura dute.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

ELORRIO

Martxoak 9, larunbata
8:30 Urkiolara mendi martxa. << IRTEERA - Herriko plaza. (Izena aurretik eman behar da, martxoaren 6ra arte)
19:00 Rita- ANTZERKIA. Arriola Antzokia

Martxoak 9-10-11
FILMA: Carmen y Lola
Martxoak 9: 22:00etan. Martxoak 10 eta 11: 20:00etan Arriola Antzokia

Martxoak 12, asteartea
18:30 HITZALDIA: Zaintzak agerian ipini, Elorrioren egiteko dagoen zeregina. Hizlaria: Esther Alonso Vallina. Iturri Kultur Etxea

Martxoak 13, asteazkena
19:30 HILEKO DOKUMENTALA: Bobbi Jene. Iturri Kultur Etxea

Martxoak 14, osteguna
20:00 ANTZERKIA: Bakean dagoena, Bakean utzi. Tabernaz taberna

Martxoak 16-17-18
FILMA: La mujer de la montaña. Martxoak 16: 22:00etan. Martxoak 17 eta 18: 20:00etan. Arriola Antzokia

Martxoak 22, ostirala
20:30 ANTZERKIA: Elisa e Marcela (A panaderia). Arriola Antzokia

*** << EMAKUMEENTZAT**

INFORMAZIO GEHIAGO
Elorrioko Udala
946 570 809
www.elorrio.eus
www.arriolaka.eus
www.grebafeminista.wordpress.com

Martxoak 1, ostilara
17:00 Sorgina txirulina ipuin kontalaria. Emakume Paregabek eta Berdintasuna. Elorrioko ume-liburutegian (17:00: 3-5 urte bitarteko umeak / 17:30: 6 urtetik gorako umeak)

Martxoak 6, asteazkena
18:30 HITZALDIA: Ekonomia Feministara lehen hurbilpena. Hizlaria: Jone Etxeberria Agirre. Iturri Kultur Etxea

Martxoak 7, osteguna
16:00 GOGOETA DIDAKTIKOA: El orden divino. << Iturri Kultur Etxea
19:00 ERAKUSKETA: Hilekoa gorria ote. Iturri Kultur Etxea

Martxoak 8, ostirala
GREBA FEMINISTA
13:00 Kontzentrazioa: Emakumeok* planto! << Herriko plaza
18:30 Zaintza Plazara! Flashmobaren proiektzioa. Herriko plaza
19:00 Kontzentrazioa: Gora Emakumeon Borroka!!! Herriko plaza



Berrizen emakumeen lasterketa egingo dute

LASTERKETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hamargarren urtez, berdintasun lekukoa emanez, Berrizen korrika egingo dute martxoaren 10ean. Familia giroan egiten den Añeketan proba 12:00etan hasiko da, Berrizburun, eta herriko kaleetatik korrika ibili ostean, Olakuetan amaituko dute.

Aurten ere, Berrizko elkar-teen ordezkariak eskuz esku eramango dute lasterketako lekukoa. Horren aurretik, baina, elkarre bakoitzak berdintasunaren inguruko esaldi bat sartuko du lekukoaren barruan, eta lasterketa amaitutakoan mural batean jarriko dituzte esaldi guztiak. Horrela, herritar guztiak izango dute aukera elkarrekin idatzi dituzten mezuak irakurtzeko.

Horrez gain, lasterketa amaitutakoan, aurreko urteetan lez, berdintasunaren alorrean lan egin duten elkarrekin bi gutxienez sarituko dituztela jakinarazi dute Berrizko Udaleko Berdintasun Saileko kideek.

Lyceum Club, Espainiako lehen klub feministaren inguruko antzezlan, Berrizen

Martxoaren 9an eskainiko dute Pilar Zubiaurre garaitarrari omenaldia egiten dion antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean

ANTZERKIA MAIALEN ZUAZUBISKAR

1926an, Pilar Zubiaurre garaitarrak, Maria Maeztuk, Zenobia Camprubi eta Carmen Barojak, beste hainbat emakumegaz batera, Lyceum Club, Espainiako lehen klub feminista sortu zuten. Klub honen asmoa emakumearen interesen alde borroka egitea izan zen. 1939an ideia politikoengatik kluba itxi

Emakumearen interesen alde borroka egitea izan zen Lyceum Clubaren asmoa

ostean, Zubiaurre, Maeztu, Camprubi eta Baroja deserrira joatera behartuta egon ziren.

Espainiako gerra zibila hasi ostean kulturaren eta ausardiaren bidez Espainian feminismoaren oinarriak ezarri zituzten lau emakume erbesteratuei omenaldia egiteko asmoz, Lyceum Club antzezlan plazaratuko dute Berrizen.



1939an sortu zuten lehen klub feminista.

MARTXOAK 8 BERRIZ EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 8

19:00 MARTXA

Udaletxetik Urtiaga plazara

GREBA FEMINISTA

Adi Mobilizazioei!

Martxoak 9

20:00 ANTZERKIA
LYCEUM CLUB

Kultur etxea

Martxoak 10

12:00 X. AÑEKETAN

Berrizburu

Martxoak 15

18:15 UMEENTZAKO
ANTZERKIA - LAU

Kultur etxea

Martxoak 16

20:00 KONTZERTUA
ELENA SETIEN

Kultur etxea

Martxoak 20

19:00 FILM LABURRAK
ZINEGOAK

Kultur etxea

Martxoak 27

19:00 FILM-DOKUMENTALA
L'ATELIER

Kultur etxea

Martxoak 30

12:15 OLGA SANCHEZ IPUIN
KONTALARIA

Kultur etxea

Martxoak 6tik 30era
ERAKUSKETA - OUKA LEELE

Kultur etxea



“Lotuta eduki gaituzten lotsa eta beldurrei barrez erantzuteko aukera ematen du ikuskizunak”

Tabu izan diren gaiak umorez jorrotzen dituzte 'Sex o no sex' ikuskizunean

ANTZERKIA • JOSEBA DERTEANO

Oihulari Klown konpainiaren 'Sex o no sex' ikuskizuna birritan ikusi ahal da Durangaldean: martxoaren 6an, Zornotzan, eta martxoaren 14an, lurretan. Virginia Imaz antzele donostiarrak Pauxa pailazoaren azalean sartuko da beste behin ere, eta sarritan tabu izan diren gaiak umoreagaz landuko ditu.

Zer aurkituko du 'Sex o no sex' ikuskizuna ikustera doanak?

Klown teatroaren barruan publiko helduari bideratuta dagoen ikuskizuna da. Oihulari Klown konpainiak gaztetxoei zuzendutako ikuskizunak ere baditu, baina ni publiko helduan espezializatu naiz. Kasu honetan, *Sex o no sex* ikuskizunean, afektibitateari eta hezkuntza sexualari buruzko azterketa egiten da, beti ere alde komikotik. Nik jaso dudana hezkuntzatik abiatuta, hainbat

ideia eta gai jorrotzen ditut. Arlo horretan jaso dudana hezkuntza nire belaunaldiko emakume askok jaso dutenaren antzekoa dela esango nuke. Beraz, hastapenei eta kontatzen zizkigutenek eragindako beldurrei buruz berba egingo dut. Lana ikustera bertaratzen direnei gonbidapena egiten diegu gai horiei buruz barrez egiteko eta umore ikutuagaz hartzeko.

Umoreak laguntzen du sarritan tabu izan diren gaiak lantzen?

Dударик barik. Nire ustez, umorea erabiltzea jendearengana hurreratzeko eta distantzia emozionala hartzeko estrategia da. Begirada beste modu batera zuzentzeko aukera eskaintzen du. Batez ere lotsa eta beldurra eman izan dizkiguten gaiei dagokierenez, morapiloa askatzeko modua ematen du. Lotuta eduki gaituen hori errazagoa da askatzen ba-

rreraren bidez. Lotsa eta beldur horiei barrez erantzuteko aukera eskaintzen dizu umoreak. **Eta orain arte eskaintako ikuskizunetan, sumatu duzu jendea lotsak askatzeko balio diola?**

“Gizartea zenbat eta okerrago egon, orduan eta gehiago behar dugu umorea”

Test sozial bat ere bada. Ikuskizunak oso ondo funtzionatzen du. Pailazo moduan, nik parte hartzen dudana ikuskizunetatik errazena da barrea eragiteko. Zergatik? Zoritxarrez, sexuaren inguruan gura genukeena baino tabu, muga eta debeku gehiago

Zinegoaken hedapena antolatu dute martxoaren 8ko egitarauaren baitan, Durangaldean

Abadiñon eta Berrizen ikusi ahalko dira Zinegoaken hedapeneko film laburrak; guztira, 6 proiektzio eskainiko dituzte



Zinegoaken aurkezpeneko argazkia.

ZINEA • KAROLINA SUAREZ

Dorre handi bat eraiki gura dute, harrizkoa, lurrean botata gelditu diren harriekin. Aurrerantzean ere jaurtiko dituzte euren kontra. Orduan, altuagoa eta sendagoa izango da dorrea. Aurrerantzean ere *boltera*, xeble edo maritxua izateko. Dorrea, goialdetik, hegoak zabaltzeko izango da. Luma koloretsuak harrotasunez erakusteko.

Hamaseigarrenez, Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdia helduko da Euskal Herriko hainbat tokitara. Julen Nafarrate jaialdiko prentsa arduradunak adierazi bezala, urtez urte handitzen doa hedapena. "Aurten, 44 herritan egongo gara, 66

proiektziogaz. Inoiz baino gehiago dira".

Horien artean, Abadiñoko Errota Kultur Etxean eskainiko dituzte filmak, martxoaren 14an, 18:30etan. Martxoak 8ko egitarauaren baitan proiektatuko dituzte: *Anders*, *Vidi ja ti nea*, *The things you think I'm thinking*, *Malik*, *Oasis* eta *Nomeolvides* film laburrak.

"Pantailetan ikusten ez diren gai asko ikusteko aukera ematen du hedapenak", esan du Nafarratek. Hamar bat urte dira Zinegoak Bilbotik irten zela. "Bilbon egiten den jaialdiari ematen diogun garrantzia berbera ematen diegu herrietan egiten ditugun proiektzio guztiei", gaineratu du.

"Aurten, 44 herritan egongo gara, 66 proiektziogaz. Inoiz baino gehiago dira"

Zinegoak, Berrizen

Berrizko Udalak ere parte hartuko du Zinegoaken hedapenean. Martxoaren 20an, Kultur Gunean, 19:00etan, film labur hauen proiektzioa izango da: *Anders*, *Vidi ja ti nea*, *Devi*, *Mali*, *Oasis* eta *Nomeolvides*.

Zinegoak jaialdiko 6 film labur proiektatuko dituzte Abadiñoko eta Berrizko kultur guneetan

barneratuta ditugulako. Ikuskizunak funtzionatzen badu, gizartean oraindino lan asko egiteko dagoelako da. Gizartea zenbat eta okerrago egon, orduan eta gehiago behar dugu umorea. **Ikuskizunera doan publikoak ere parte hartzen du ekitaldian?**

"Arlo horretan jaso dudana hezkuntza nire belaunaldiko emakume askok jaso dutenaren antzekoa dela esango nuke"

Publikoak beti parte hartzen du nire ikuskizunetan. Batzuetan pentsatzen dugu jendea eszenatokira atera ezik ez dela hartueman hori ematen. Ez du zertan horrela izan. Publikoa uneoro dago sartuta ikuskizunean. Bidelaguna da proposatzen dudana bidaia horretan.


Aspaldian izan zara Durangaldean zure ikuskizunekin?

Zornotzan ez naiz aspaldian egon. Iurretan, bai. Iurretara urtero joaten naiz, ipuin kontalari moduan. Gainerakoan, ikuskizun honegaz Durangon egon nintzen, orain bi-hiru urte. Egia esanda, Durangaldeko herrietan oso gustura ibiltzen naiz eta orain arte oso esperientzia onak izan ditut.



Virginia Imaz donostiarrek gidatzen du ikuskizuna, Pauxa pailazoaren paperean.

GEURE GORPUTZAK, GEURE ERABAKIAK



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA


MARTXOAN
MARGO ERAKUSKETA "ENTRE FRIDAS Y CHAVELAS" (Miriam Rodriguez)
Errota Kultur Etxea (2. solairua)

MARTXOAK 7
18:00-20:00 **TAILER BIDEFORUMA "ENTRE FRIDAS Y CHAVELAS"** (Miriam Rodriguez)
Errota Kultur Etxea
(LEKU MUGATUAK! Izena eman: berdintasuna@abadiano.org - 94 466 94 20)

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
MUGIMENDU FEMINISTAK DEITUTAKO LANA, IKASKETAK, KONTSUMO ETA ZAINTZEN GREBA

MARTXOAK 14
18:30 **ZINEGOAK HEDAPENA**
BILBOKO GAYLESBOTRANS 16. NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA
Errota Kultur Etxea

MARTXOAK 15
10:00-12:00 **"GORPUTZAK BADAKI"** (Begoña Juaristi)
ADIERAZPENERAKO MUGIMENDU TAILERRA (Amalurra elkartearen eskutik)
Errota Kultur Etxea (Aretoa)
(LEKU MUGATUAK! Izena eman: berdintasuna@abadiano.org - 94 466 94 20)





Iazko irudi bat.

Emakumeek greba egiteko, zaintza kolektiboa antolatu dute Zaldibarren

Ume zaintza eta jantoki zerbitzua eskainiko dituzte martxoaren 8an Zaldibarren, emakumeek greban parte hartu ahal izateko

ZAINZTA • A.M.

Iazko martxoaren 8ko greba historikoan greba egitea ahalbidetzeko, zaintza kolektiboak antolatu zituzten Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan, tartean, Zaldibarren. Donostiako Txatxerreka gaztetxea-

ren ereduari jarraitu zioten Zaldibarko Gazte Asanbladako hainbat kidek. "Gaztetxeko gizona kook greba babesteko modurik aproposena emakumeei greba hori egiten ahalbidetzea zela uste genuen", adierazi du Ibai Iraeta gazteak. Iaz-

ko zaintza kolektiboan parte hartu zuen, hainbat kidegaz batera. Roberto Machok ere parte hartu zuen, eta aurtengoa antolatzen ari da. "Dominika talde feminista, eta mugimendu feminista orokorrean, lan itzela egiten ari dira; gurea ekarpen txiki bat baino ez da", esan du.

Aurten greba 24 ordukoa dela kontuan hartuta, antzerako planteamendua egin dute. "Iaz oinarri bat jartzea gura genuen, eta aurten gehiago lantzen saiatu gara", azaldu

10:00-20:00 bitartean eskainiko dituzte ume zaintza eta jantoki zerbitzuak Zaldibarren

du Machok. Horrela, Martxoaren 8an ume zaintza (Zapatublaiko lokalean) eta jantoki zerbitzua (gaztetxean) eskainiko dituzte,

Zaldibartarrek urraturiko biderei jarraituz, Sorginola gaztetxean ere zaintza kolektiboa egingo dute

10:00etatik 20:00etara bitartean. Greban parte hartu gura duten emakumeek 699 253 532 telefono zenbakira deituta edo umeenzaintza@hotmail.com helbidera idatzita egin ahalko dute umeen izen-emaitea. Martxoaren 6ra arte egongo da izena emateko aukera.

Aitzindaria Durangaldean

Eskualdean zaldibartarrek urraturiko biderei jarraituz, Durangoko Sorginola gaztetxean batzarra egin zuten, eguaztenean, *Zaintza lanen ardura hartu dezagun!* lelopean. "Mutilen artean zaintza espazioa antolatzeko", adierazi zuten.



Durangaldeko nesken topaketa Zaldibarren izango da

ZALDIBAR • A.M.

Iazko arrakastaren ostean, beste urte batez Durangaldeko neska gazte feministen topaketa antolatuko du eskualdeko Biribilketa gazte feministen sareak. Martxoaren 16an izango da hitzordua, Zaldibarko gaztetxean. Tailerrak eta elkar ezagutzeko tartea egongo dira, besteak beste. Horrez gainera,

Lehenbizikoz, Ermuko Nü Shu gazte feministek Durangaldeko deialdi bategaz bat egingo dute

arratsaldean tertulia egingo dute, *Gazte mugimendua feminista da?* ideari buruz hausnarketa egiteko. Aurten, lehenbizikoz, Ermuko Nü Shu gazte feministak ere egongo dira eskualdeko deialdi batean. Domekan, hilak 3, aurkeztuko dute egitarau osoa, 17:30ean egingo duten agerraldian.




EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA M8

Martxoak 8, ostirala
GREBA FEMINISTA
"Heteopatriarkatu kapitalistari planto!"



Martxoak 9, larunbata
21:00 AFARIA ETA DANTZALDIA
Txartelak 15 euroan salgai Olga, Sorgin, Karobi eta Castet-en. Erosteke azken eguna: martxoak 6 Olazar frontoian

Martxoak 10, igandea
EMAKUMEZKOEN TXIRRINDULARI BIRA

Martxoak 9-10, larunbata-igandea
HELMUGA EMAKUME ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA
Larunbata: 11:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00
Igandea: 11:00 - 14:00
Liburutegi Zaharrear

Martxoak 13, asteazkena
IRTEERA HELMUGA EMAKUME ELKARTEAK ANTOLATUTA

Martxoak 14, osteguna
19:00 'ERRADIKALAK GARA' MONOLOGOAK
Liburutegi Zaharrear

Apirilak 2 eta 9, asteartea
18:00-21:00 AHALDUNTZE IKASTAROA:
EKONOMIA FEMINISTA.
Liburutegi Zaharrear



GORA BORROKA FEMINISTA!

20 postuk osatuko dute emakume nekazari eta artisauen azoka

Musika, dantzak eta herri kirol erakustaldiak ere egongo dira, Zubiondo parkean



Ogia, gazta, bitxiak, xaboiak eta beste hamaika produkturen gaineko postuak jarriko dituzte Zubiondo parkean.

AZOKA • JOSEBA DERTEANO

Martxoaren 9an 22. aldia egingo du emakume nekazari eta artisauen azokak. Goizean zehar askotariko postuak jarriko dituzte Zubiondo parkean. Nekazaritzaren alorreko stand-etan ogia, gazta, etxean egindako hanburgesak eta marmeladak aurkitu ahalko dira, besteak beste. Artisautzara bideratutako postuetan ere denetarik erakutsiko dute: zeramika

Martxoaren 9ko azokaren harira, jan-edanerako txosna bat jarriko dute postuen ondoan

Besteak beste, Harriti emakumeen herri kirol taldeak erakustaldia eskainiko du

lanak, bitxiak, xaboiak, arropak eta larruak, besteak beste. Azokaren harira, jan-edanerako txosna bat jarriko dute, eta txistulari eta trikitilariak goiza animatuko dute. Horrez gainera, Harriti emakumeen herri kirol taldearen erakustaldiagaz gozatzeko aukera egongo da eta Udabarri Dantza Taldeak saioa eskainiko du.



Azkoerbeitiak hitzaldia eskainiko du martxoaren 7an

HITZALDIA • J.D.

Oihana Azkoerbeitia mendi korrikalari abadiñarrak hitzaldia eskainiko du Zornotzan. Martxoaren 7an izango da, 20:00etan, Zornoza elkarte artistiko kulturalaren lokalean. Iaz argitaratu zuen *Mendiaren altzoan* liburua abiapuntu moduan hartuta, emakume eta ama izateak —seme bi ditu— kirolean zein erronka suposatzen dituen azalduko du.

Azkoerbeitiak hainbat txapelketa irabazi zituen iaz. Lorpen horiengatik, Euskal Mendizale Federazioak 2018ko mendiko korrikalaririk onenaren saria eman dio.

MARTXOAREN 8an ZORNOTZAN 2019

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 6

- 19:00 "SEX O NO SEX" gazte eta helduentzat aretoko klowneri antzerki ikuskizuna. OIHULARI KLOWNERI antzerki taldeko Virginia Imaz Quijera arituko da. Zornotza Aretokan. Sarrera doakoa

MARTXOAK 7

- 20:00 Hitzaldia, Oihana Azkoerbeitia "Mendiaren Altzoan". SACZ edo Koraleko lokalean, Harrison 6-10. Jarduera hau SACZ Koraleko elkarteak antolatuta du.

MARTXOAK 8

- 13:00 Elkarretaratzea eta Erakunde Adierazpena. Herriko plazan
- 17:00 Eskulan tailerra "Aparteko emakumeak". Ludotekan
- 18:00 Txapa tailerra "Aparteko emakumeak". Gaztetxokoa

MARTXOAK 9

Goiz osoan zehar Zubiondo Parkean: Emakume Artisan eta Nekazarien Azokaren XXII.edizioa.

- 10:00 Postuak zabaldu
- 11:00 Txistulariak
- 11:30 Trikitilariak
- 12:00 Herri kirolak
- 12:30 Dantzariak
- 14:30 Postuak itxi

12:00 "Marikalanbre bizitzaren laborategian", ANA GALARRAGA ipuin kontalariarekin. Udal liburutegian

Antolatzailea



Laguntzailea

BERDINTASUNERAKO UDAL BATZORDEA



Lilakrosean ehunka lagunek parte hartuko dute, iaz bezala.



Durangoko 26 elkartetako kideek ere parte hartuko dute, elkarri erreleboa emanda.

Durangoko Lilakrosean parte hartuta, Guatemalan indarkeria jasandako emakumeei lagunduko diete

penean egon zen, eta, bere ustez, Lilakrosa "aukera ona" izango da euren egitasmoa ezagutzera emateko. Indarkeria matxista sufritutako emakumeekin egiten dute lan.

Parekidetasuna aldarrikatzeaz gainera, kutsu solidarioa ere edukiko du lasterketak

LASTERKETA • MARKEL ONAINDIA

Parekidetasuna ardatz askoren bueltan jorratuko dute martxoaren 8ko ekintzetan, eta horietako bat kirola izango da. Durangon, Lilakrosak 14. edizioa beteko du aurten, eta berriro ehunka lagun batzeko

apustua egingo dute; martxoaren 10ean izango da, 12:00etan. Kamisetak egunean bertan eskuratu ahaliko dira, 11:30ean hasita; baita aurreko egunetan ere, HAZen eta Landako kiroldegian. Gutxienez euro bat emanda jasoko dute eta

Lopezen ustez, Lilakrosa aukera ona izango da euren egitasmoa ezagutzera emateko

dirua Medicus Mundi Bizkaiak Guatemalan emakumeei laguntzeko duen proiektu baterako izango da, udalak ere babesten duena, hain zuzen. Beraz, parekidetasuna aldarrikatzeaz gainera, kutsu solidarioa ere edukiko du lasterketak.

Medicus Mundi erakundeke Joana Lopez egitarauaren aurkez-

Guatemalara bidaia

Nabarmentzekoa da udaleko ordezkari bat Guatemalan izan dela azken asteetan, proiektua zuzenean ezagutzeko. Euregaz, Durangotik Hegoaldera lehiaketa irabazi zuen gazte taldea ere joan da. Izan ere, gazteak kontzientziatzeko asmoz sortu zuen lehiaketa udalak.



MARTXOAK 8

DURANGO

Emakumeen Nazioarteko Eguna




Martxoak 1
HITZALDI-SOLASALDIA: 'Azala Erre'
Danele Sarriugarte
18:00 Euskaraz / Andragunean
Andraguneko Euskarazko Irakurketa Feminista Taldea

Martxoak 6
SOLASALDIA:
'EL ABORDAJE ACTUAL DE LA PROSTITUCIÓN'
Marian Arias-Askabide
18:30 Andragunean. Andreak Elkarteak antolatua

Martxoak 8
MANIFESTAZIOA
Informazio gehiago aurrerago sare sozialetan
Martxoak 8 Asanbladak antolatua

Martxoak 9
ABESTI FEMINISTEN LEHIAKETAREN KONTZERTU-FINALA
19:00 Andra Mariko elizpean
Lehiaketan aukeratutako finalistak hartuko dute parte

Martxoak 10
XIV. LILAKROSA
11:30 Kamiseten banaketa
'Medicus Mundi Bizkaia'-ren alde. Ezkurdin
12:00 XIV. Berdintasunaren aldeko ibilbidea Ezkurdin
Amitzerakoan, Vday dantza partehartzailea Santa Anan

Martxoak 14
MAHAI-INGURUA: 'MUJERES Y DEPORTE: PASADO, PRESENTE Y FUTURO'
18:30 Andragunean. Mendibeltz kirol taldea

Martxoan zehar emakume artisten erakusketak Durangoko Arte eta Historia Museon



berdintasuna

ahaztatzen

ahaztatzen



Martxoaren 1ean

ABADIÑO musika

Dj Aices, 17:00etan, Traña-Matienako frontoian. Txokolatea.

BERRIZ kalejira

Euskal diskofesta, 18:30ean, frontoian. Txokolatea.

ZORNOTZA ikuskizuna

'Musua' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:30ean, frontoian.

ZORNOTZA aurkezpena

Perubeleren aurkezpena. 19:00etan, Zelaietan. **Sagardoa+txorizoa**, 19:30ean. **Erromeria: Urrats**, 20:00etan.

ZORNOTZA antzerkia

'7ak bat' (ATX) 20:15ean, Zornotza aretoan.

Martxoaren 2an

ABADIÑO musika

Zubietako joaldunak, 12:00etan, Traña Matienan. Zelaietan, **Erdizka lauetan** trikitixa. **Bazkaria** probalekuan, 14:30ean.

ABADIÑO dantza

Kiki, Koko eta Moko, 16:30ean, probalekuan. Traña-Matienako aterpean **Erromeria: Basajaun**, 18:30ean.

BERRIZ topaketa

Kuadrillen topaketa, 18:30ean, Elizondon. **Mozorro lehiaketa+dj-a**. **Jaitsiera**, 19:30ean. **Afaria**, frotoian, 21:00etan. **Dj Robert**.

DURANGO kalejira

Surrandiak trikitilariekin, 12:00etan. **Urolatarrak fanfarria**, 12:30ean.

DURANGO musika

Dj jai, 18:00etan, Plateruenean. Ordu berean, Merkatu Plazan, karnabal doinuak eta prestaketak. **Surrandien eta Hartzaren konpartsagaz kalejira**, 18:30ean. Andra Marian, **txokolatea**, 20:00etan.

DURANGO lehiaketa

Mozorro lehiaketa, 22:00etan, Andra Marian. **Dj-ak: Danny Meip, Gorka Perez eta Gato Dj-ekin**.

DURANGO jolasak

Haur parkea, Landakon (17:00-20:00). Hilaren 3an eta 5ean.

ELORRIO musika

II. Rock'n'Roll Animal Fest, 19:00etan, Ateneoan.

IURRETA bazkaria

Bazkaria, 14:30ean, Askondon. **Bingo musikala**. Erromeria: **Ezten giro**.

MAÑARIA tostadak

Errokillak eta tostadak, 16:30ean. Gero, bertarutzen direnentzat txitxiburduntzia.

MALLABIA erromeria

Gauargi, 20:00etan, plazan.

ZALDIBAR bazkaria

Bazkaria, 14:00etan, Kiroldegian. **Disko txiki** 17:00etan.

ZORNOTZA ikuskizuna

'10 urte' (Tomaxen abenturak), 18:00etan, Zelaietan. **La Basu**, 20:00etan. Gero, **Dj Ibai**. **Triki Piu** trikitilariak. **Mozorro lehiaketa: Komik pertsonaiak**.

Martxoaren 3an

ABADIÑO erromeria

Kantu kolore (Far west) 17:00etan, Traña-Matienako aterpean.

DURANGO musika

Dj LEG-OH (Iñigo Morentin), 17:30etik 20:30era, Plateruenean.

Los Gavilanes

mariachiak, 18:00etan, Andra Marian.

DURANGO antzerkia

'Ego' (Dikothomia Cia), 19:00etan, San Agustinen.

ELORRIO antzerkia

'Liluraren laborategia' (Sun magoa), 17:00etan, Arriola antzokian.

MAÑARIA jolasak

Puzgarriak eta jokoak ume eta gaztetxoentzat, 17:00etan.

ZORNOTZA dantza

Inauteri dantzak Udabarri taldeagaz, 12:00etan. **'Prozac' (Malas compañías)**, Zelaieta parkean, 18:00etan.

Martxoaren 4an

ZORNOTZA jolasak

Umeentzat jolasak, 17:30ean, Zelaieta parkean. **Kontzertu akustikoa**, 19:30ean.

Martxoaren 5ean

ABADIÑO kalejira

Umeen kalejira eta txokolatea, 10:00etan, Zelaietan. **Dj Unai**, 15:00etan. **Txokolatada+triki-poteoa** 18:30ean, Traña-Matienan.

DURANGO photocall

Mozorro photocall-a, 16:00etan, Landakon. **Sari zozketa**, 19:30ean. **Oihan Vega + tailerrak**, 16:30ean, Andra Marian.



Ego

Dikothomia Cia
Martxoak 3, domeka
19:00etan




Interrupted

Teatro in Vilo (Madrid)
Martxoak 9, zapatua
20:00etan



Kartoi biraka

Markelñe antzerki taldea (Zornotza)
Martxoak 17, domeka
18:00etan



Zer gertatu ote zitzaien Ana

Garciari? Pabellón Geko Gazte konpainia (Bilbo)
Martxoak 21, eguena
19:00etan



San Agustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

DURANGO jai

Inauteri jai, Durangoko Rugby Taldeak antolatuta. **Tostadak eta guzti**.

ELORRIO jai

Eskola umeen dantzak, 10:00etan. **Larima disko festa**, 11:30etik 13:00etara. **Umeen parkea**, (10:30-13:30/16:30-18:30). **Txokolatea**, 18:15ean. **Luhartz**, 18:30ean, plazan.

IURRETA musika

Dj Ainhua, 18:00etan, Dantzari plazan.

MALLABIA pailazoak

Potxin eta Patxin pailazoak: zirkuko izarrak, eskolan, 14:30etik 16:00etara. **Txokolatea**, 16:30ean, frontoian. **Dj Txurru** 20:30era arte. **Play-back+ mozorro lehiaketa**, 18:30ean.

ZALDIBAR lehiaketa

Tostadak, Udaletxeko plazan, 16:30ean. **Mozorro lehiaketa**, 17:00etan. **Disko festa: Alaiki**.

ZORNOTZA antzerkia

'Txapela buruan eta dantza munduan' (Eidabe), 17:00etan, Zelaietan. **Perubeleren agurra**, 19:00etan. **Txokolatada+'Mugi Dubi Doo dantzan' (Nai imaginazioak)**, 19:30ean.

Zinea

:: Durango ZUGAZA

• 4 Latas

barikua 1: 19:30/22:00
zapatua 2: 17:30/20:15/22:30
domeka 3: 18:00/20:30
astelehena 4: 18:30/21:00
martitzena 5: 20:00
eguztena 6: 20:00

• Destroyer

barikua 1: 19:30
zapatua 2: 19:30
domeka 3: 20:30
astelehena 4: 21:00
martitzena 5: 20:00
eguztena 6: 20:00

• ¿Podrás perdonarme algún día?

barikua 1: 19:30/22:00
zapatua 2: 20:15/22:30
domeka 3: 18:00
astelehena 4: 18:30/21:00
martitzena 5: 20:00
eguztena 6: 20:00

• Bohemian Rhapsody

barikua 1: 22:00
zapatua 2: 17:30/22:00
domeka 3: 19:30
astelehena 4: 18:30

• Cómo entrenar a tu dragón 3

zapatua 2: 17:00
domeka 2: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• Cold War

domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• La Favorita

zapatua 2: 19:30/22:00
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:15

• Uno más de la familia

zapatua 2: 17:00
domeka 3: 17:00

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

“Wikipedian ez da agertzen liburuko sortzaileek Euskal Herriagaz duten harremana, eta horixe kontatzen dut nik”

'Extraños en el paraíso' kaleratu du Jose Julian Bakedano zinegileak, Pamiela argitaletxeagaz; ANBOTOn publikaturiko kolaborazioak biltzen ditu bertan



Jose Julian Bakedano
Zinemagilea

Durango | 1948

daiteke horretarako. Modu horretara, berriro existitzen direla esan daiteke. Aipatzen ditudan autoreak ere gustuko ditut.

Bigarren bizialdi bat.

Bai, hori da. Azkeneko kolaborazioa idatzi nuenean hausnartu nuen horri buruz, eta gero egin nuen nire proposamena. Oraindik beste 62 zutabe ditut idazteko, baina lan gutxiago dudanean idatziko ditut. Hor ere, nagusiki idazleei buruz idatziko dut, baina badaude zinemagileak edo margolariak ere. Tamalez, ezin izan ditut guztiak liburu honetan idatzi.

Honek guztiak ikerketa lan handia suposatuko zizun, ezta?

Wikipedian ez da agertzen liburuko sortzaileek Euskal Herriagaz duten harremana, eta horixe kontatzen dut nik, hain zuzen ere. Nik egindako irakurraldietan topatu ditut, edo lagunek eman dizkidaten pistetan. Kasu batzuetan, nahikotxo ikertu behar izan dut, baina beste pasarte batzuk buruz nekizkien eta ez dut horrelako lanik egin behar izan. Memoria ariketa bat ere izan da.

Azaleko katua Aliceren Lurrealde Miresgarrikoa da?

Bai, Cheshireren katua da azalekoa. André Malraux idazle frantziarrak hauxe idatzi zuen hilaurreko azken liburuan: "Eta orain, hiltzorian nagoen honetan, Aliceren Lurrealde Miresgarriko katua ikusten dut niri irribarreka". Horrexegatik jarri dut katua liburuko azalean. Malrauxek harremana zuen Ipar Euskal Herriagaz, eta hurrengo liburuan sartuko dut.

Geratzen diren 62 horiek lantzen hasi zara?

Bai, batzuk idatzita ditut jada, Rafael Sanchez Mazas eta Aitor Paret, adibidez. Baina denbora dudanean idatziko ditut gainontzekoak.

Ze beste proiektu duzu esku artean?

Bilboko Arte Ederren Museoko aholkularia naiz, eta Azkuna Zentroan zine zikloak ere antolatzen ditut. Vicente Larrea eskultoreari buruzko eta Mondragon Kooperatibari buruzko dokumental banatan ere banabil lanean, eta beste liburu bat idazten ari naiz, Paul Schraderri buruzkoa.

Bakedano, bere azken liburua esku artean duela.

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Jubilatuta egon arren, hainbat proiektutan murgilduta dago Jose Julian Bakedano durangarra. Azkena, 'Extraños en el paraíso'. ANBOTOrako idatzitako kolaborazio zaharrak hartu, eta bilduma batean batu ditu Bakedanok. 42 sortzaileek Euskal Herriagaz duten harremana aletu du bertan.

Nondik dator ANBOTOrakiko harremana, eta nola gorpuztu da liburu hau?

Orain hamabost bat urte, Xabier Amurizak ANBOTOGaz kolaboratzeko eskatu zidan. Buruari bueltak eman ostean, kolaborazio horietan zenbait idazle, sortzaile edo zinemagilek Euskal Herriagaz duten harremana aztertu gura nuen. Kanpotik, Euskal Herriarekiko duten ikuspuntua erakutsi gura nuen. Sei astean behin-edo idazten nituen zutabe horiek, eta 42.era heldu nintzenez, liburutxo baterako moduko materiala nuela ikusi

nuen. Orduan, gaztelaniaz idatzi nituen testu originalekin bilduma egin nuen. Bere garaian, itzulpenak Amurizak berak eta Igor Elortzak egin zituzten, besteak beste.

Zeintzuk dira sortzaile horiek?

Denetarik idazleak daude: Frazer, Jorge Semprun eta Gore Vidal, besteak beste. Ezezagunagoak direnei argazkiak jarri dizkiegu testuen alboan. Senprunena, adibidez, gehien gustatzen zaidanetako bat da. Buñuelena ere atsegin dut. Betidanik, txikitatik, obsesionatu nau

“

Betidanik obsesionatu nau kanpotik nola begiratzen diguten, zein jendeak berba egiten duen Euskadiri buruz”

■

kanpotik nola begiratzen diguten, zein jendeak berba egiten duen Euskadiri buruz; adibidez, Pierre Loti Ramuntxoren egileak egin zuen bezala. Txikitatik arduratu nau horrek, euskal herritarrek ez direnek guri buruz zein iritzi duten.

Zein iritzi dute liburukoek?

Gehienak gorazarrezkoak dira, Borgesena izan ezik. Bere atala *Borges contra los vascos* deitzen da, eta *El Congreso* deituriko ipuin batean oinarritzen da. Bertako protagonista Fermin Eguren euskal herritarra da, eta behiak jetzi baino egin ez duen herri baten parte dela dio. Borgesek bazuen harremana euskal herritarrekin, baina eskasa. Bera da liburuko ardi beltz bakarra.

Hitzurrea Kirmen Urubek idatzi du. Bereziki idatzi du Kirmenek. *Bilbao-New York-Bilbao* liburuko protagonistetako bat naiz, izan ere, museora etorri zen Arteta eta Bastida arkitektoaren arteko harremanaren inguruko azalpeni buruz galdezko. Azken liburuan ere, Manu

Sota protagonista eraikitzen lagundu nion, eta lagun hori neu nintzen nobelan. Epilogoia Bernardo Atxagak idatzi du. Bere testu bat ere berreskuratu dut bere baimenagaz, gaiari buruz berba egiten duelako. Kirmenen hitzurreaz gainera, nik ere beste bat idatzi dut, *Leer es un gran placer* titulua duena. Oso pozik nago liburugaz. Azken finean, horrela egin ezean, ANBOTOrako idatzitako kolaborazio horiek galdu egingo lirake eta. Jendeak ez ditu gordetzen, eta hau aukera ona izan

“

Borges da liburuko ardi beltz bakarra. Bazuen harremana Euskal Herriagaz, baina eskasa zen”

■

Sun Magoaren ikuskizunagaz, Elorrioko Arriola 'Lilularen laborategi' bilakatuko da, domekan

Martxoaren 3an eskainiko du Sun Magoak 'Lilularen Laborategia' ikuskizuna Arriolan, 17:00etan



Lilularen Laborategia.

MAGIA • A.M.

Magiaren sekretuak ezagutzeko aukera izango dute elorriarrek domekan, hilak 3. Laborategi erraldoi bilakatuko da Arriola, eta Maria Urcelay eta Na Gomes bertako zientzialariak izango dira. Bestalde, Sun magoa Ladelai Mago Handia bilakatuko da. Hiruren artean, fantasia mundu bat eraikiko dute, ordubetez. Lebitazioak, agerpenak, hipnosiak... hainbat dira magoak menperatzen dituen teknikak, eta

Haurrei zein gurasoei magiaren bidez gauza berriak irakatsi gura dizkiete modu jolasgarrian

ikusle txiki zein nagusiak liluratu-ta utziko ditu erritmo biziko ikuskizunean. Ikuskizunaren bidez, gauza berriak irakatsi gura dituzte modu jolasgarrian. Juanjo Oterok egin ditu zuzendari lanak, eta Miguel Molina da egilea.

Zuzeneko musika

Ikuskizun osoan, publikoagaz konexioa bilatuko dute Ladelaik eta zientzialari biek. Horretarako, magia trukoez gainera, zuzeneko musika egongo da. "Inork inoiz ahaztuko ez duen ikuskizuna izango da", egin dute gonbidapena artistek.

Plano hurbila



ENDIKA SALAZAR, 1981

Abadiño, Zirkua

Zirkuaren, mugimenduaren eta antzerkiaren nahasketatik sortutako obra da 'E.go'. Endika Salazar interprete abadiñarraren, eta Pau

"Aurre estreinaldia izango da Durangokoa; pozik gaude San Agustinen antzezteagaz"

Malabareekin 360 graduko ikuskizuna eskainiko du domekan Endika Salazar abadiñarrak

Portabella eta Pablo Ibarluzea zuzendarien eskutik, martxoaren 3an ikusi ahalko dugu, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Zer ikusi ahalko dugu 'E.go' obran? Zirku garaikideko espektakulua da 'E.go'. Obraren gehiengoa malabareen teknika erabilia adierazita dago. Nire eguez mintzo da ikuskizuna. Naizen guztietatik abiatuta, naizen guztia antzemateaz.

360 graduko ikuskizuna da.

Obra publikoaren hurbilekoa da oso. 360 graduko ikuskizuna egin da, laugarren pareta hautsi egiten dugu. Interpreteta eta publikoa bat bera izan daitezke 'E.go' ikuskizunean, agertokira sartzeko eskatzen diet ikusleei, lotura bat eraikitzen dut eurekin.

Badago malabareez aparteko beste diziplinarik?

Espresio guztiak malabareen bidez

adierazten dira. Zirkua hizkuntza baten moduan ulertzen dut nik. Pertsonaiak bizi dituen emozioak malabareekin azaltzen saiatzen gara. Objektu bera da, baina modu ezberdinetan maniatuta. Antzerkian eta dantzan trebatu naiz ni. Orduan, malabareez gain antzerkia ere badago. Mugimendua eta adierazkortasuna baita.

Zergatik egoei buruzko obra?

Adierazteko beharrianetik sor-

tzen da 'E.go. Zirkua artea da niretzat. Ni ez naiz aktore lanetan trebea. Niretzat, errazena, nire barnetik, nire ardurez adieraztea da. Naizenaren bilaketa pertsonalean nabil momentu honetan, nirean bizi diren egoak ezagutu gura ditut. Ego batzuk jende askorengan errepikatzen dira, beste batzuk, ostera, ez. Guztiok ezberdinak gara gure artean, edota oso berdinak. Horretaz berba egin gura dut ikuskizunean.

Etetik gertu egingo duzu ikuskizuna.

Aurre estreinaldia izango da Durangokoa, eta pozik gaude konpainian San Agustinen antzezteko aukeragaz. Abadiño egitea ere gustatuko litzaiguke.



2019KO INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Parte hartzeko, igo zure argazkia anboto.org helbidera, otsailaren 28tik martxoaren 10era arte
Martxoaren 11tik 17ra arte izango duzu bozkatzeko aukera

Webgunean botorik gehien duen argazkiaren egileak
HOTEL-TALASOTERAPIA ZELAI ZUMAIAN
ESPERIENTZIA ZORAGARRI BAT irabaziko du

Lehiaketaren oinarriak www.anboto.org webgunean



Sarrionandiari begira ospatuko du Loraldiak bosgarren urtemuga

Idazle iurretarra izango da martxoaren 12ko jaialdiaren hasiera ekitaldiko protagonista



Loraldiko bosgarren edizioako aurkezpena, Bilbon.

JAIALDIA • A.M.

Martxoaren 12an hasiko da Loraldia, Iñigo Aranbarri idazleak Sarrionandiari buruz eskainiko duen hitzaldiagaz; iurretarraren literaturaren ezaugarriak azalduko ditu bertan, eta hau gakoa izango da 15ean eskainiko duten *Kalaportu* ikuskizuna ulertzeko. Euskal kulturaren zenbait erreferente gogoan izango ditu Loraldia festibalak bere bosgarren edizioan; aurten, *Sentikariz blai!* leloean.

'Sentikariz Blai!' da Loraldia festibalaren bosgarren edizioako leloa

Apirilaren 7ra arte iraungo du Loraldiak, eta 200 artistek parte hartuko dute

Apirilaren 7ra arte iraungo du Loraldiak eta 30 kultur hitzordu egongo dira bertan. Antolatzaileen esanetan, lau ekoizpen propio estreinatuko dira, eta, guztira, 200 artistek parte hartuko dute festibalean, tartean, Mikel Urdangarin zornotzarrak eta Miren Amuriza berriztarrak.

Gai librea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo Durangoko Museoa



Pinturaren doinua

Otsailean eta martxoan zehar, museoan *Abangoardietako artea: musika eta pintura* ikastaroa ematen ari da Ana Celia Ormaetxea musika irakasleak. Bertan argi geratzen da historiari artean duen influentzia. Sorkuntza lanak gizartea pairatzen ari den egoerari lotuta daude.

Horrela bada, nik museoan egunero ikusten ditudan arte-lanak, zer musika motarekin alderatu ahal dira?

XX. mende hasierako Zubiaurre eta Barruetaren lanak garai Guridiren operekin parekatu ahal dira. Frantzia jaio zen estiloaren jarraitzaileak direnak. Oraindik erromantizismoaren usaina dutenak, baina estilo herrikoira hurbilduta.

Gerra garaiak eta gerraosteak Euskal Kultura hutsik utzi zuten. Ia ez zen egon pintura eta musika ekoizpen berririk. 50-60ko hamarkadetara arte itxaron beharko dugu Ucelayren bodegoi eta erretratuak ezagutu ahal izateko; garai hartan hasi ziren ere lehen abestiak euskaraz sortzen, Francoren diktadurapean. Iraultza soziala eta kulturala adierazten dute lehen abesti eta artelan hauek.

Baina iraultzarik handiena 70-80eko hamarkadetan etorriko da. Bi estilo nagusi nabarmendu ziren orduan, bata euskal kulturarekin lotura estuagoa duena; kasu honetan Ibarrolaren "Ontziola" lana, Pantxo eta Peioren "Itsaso ondo" abestiarekin parekatu daiteke, biak 1975ean eginak, eta bestea erradikalagoa, punk eta rock estiloetarantz hurbiltzen gaituena; Hertzainaren "Eh txo" erritmora dantza egiten dute Zumetaren "Erromeria" koadroaren kolore biziek.

Museoetan zabaldu begiak eta belarriak, eta gozatu pinturaren doinuaz!

Atara Zarata antzerki taldeak mikroantzerki maratoia antolatu gura du

Proposamenak martxoaren 13aren aurretik bidali beharko dira atazarata@gmail.com helbidera; 20an egingo da publiko

ANTZERKIA • A.M.

Atara Zarata antzerki taldeak I. Mikroantzerki maratoia antolatu gura du maiatzerako Durangon. Horretarako, deialdia egin du antzerki taldeak, parte hartu gura dutenek izena emateko.

Martxoaren 13ra arte egongo da proposamenak bidaltzeko aukera. Proposamenagaz batera, txosten

bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, antzezanaren honako informazioagaz: laburpen bat, iraupena, parte-hartzaile kopurua eta beharrez teknikoaren zerrenda. Obrak euskarazkoak zein gaztelaniazkoak izan daitezke, eta antolatzaileen esanetan, estreinatukoak zein berariaz maratoirako eginiko lanak izan daitezke.



I. Mikroantzerki maratoia litzateke.

hitz #nobedadeak
liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
1.362 KM EURI
Garazi Goia & Goizalde Landabaso
2019

UME ETA GAZTEENTZAT
NIRE ETXOLA
ETA BOK
Arantxa Azcona
2019

MUSIKA
BIDEAN
Maidar Zabalegi
2019

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



IURRETA

Tellitu-n

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Xabier Etxeita Gorritxategi
Huesca futbol taldean dabil Athleticetik utzita.
Zornotza | 1987

egunerokoan zein zelaian erantzukizunak hartzeko. Bozketa bat egin zen jokalarien artean, eta ni aukeratu ninduten. Apur bat arraroa da taldean lau hilabete zeramatzan bat kapitain aukeratzeko. Lehen mailan esperientziarik handiena neuk nuelako aukera nindutela uste dut.

Lorpenak eta txapelketak ospatutakoa zara. Esaterako, zelan gogoratzen duzu 2013an Elx taldeagaz lehen mailara igo zinen urtea?

Hasieratik lider ibili ginen eta dena primeran irten zitzagun. Egia esanda, han eman nituen hiru urteak ederrak izan ziren. Taldean zein zaleen partetik maitatua sentitu nintzen. Esperientzia hori futboleko bizi izan dudako politenetakoa da.

Athleticegaz Superkopa ospatzea bezain polita?

Hori beste kontu bat da. Athleticetik titulu bat irabaztea aparteko zerbeit da. Nire betidaniko ametsa Athleticen jokatzeko zen, baina, horrez gainera, titulu bat ospatu ahal izatea itzela da! Noren kontra eta Bartzelonaren kontra, non eta etxean. Sarritan esaten den moduan, hori irabazi eta futbola lasai uzteko modukoa izan zen.

Zelan ikusten duzu Athletic? Ematen du irabazteko errezeta aurkitu dutela.

Bai. Atzean sendo egon eta bertikal jokatu. Jokamolde horrek konfiantza eta seriotasuna eman dizkio taldeari. Gaur egun lehen mailako talderik gehienek egiten dutena da. Meritu handia dute, Berizzoren jokamoldetik Garitanoren alde handia dagoelako. Berehala moldatu dira gainera.

“Gaur egun, edozein taldek aurrekontu polit bat maneiatu dezake talde on bat egiteko”

Klubik boteretsuenak alde batera utzita, gainerakoen artean ez dagoela alde itzelik uste du Xabi Etxeitak

FUTBOLA • JOSEBADERTEANO

Iaz Athleticen askorik jokatu ez bazuen ere, aurten nahikotxo jokatzeko ari da Huesca taldean. Bilboko taldeak utzita ari da han jokatzeko. Ohikoa da hasierako hamaikakoan, eta zelaian kapitainaren besokoa darama. Golera-ko usaimena ere ez du galdu. Joan zen asteburuan, gol dotore bat sartu zuen, Espagnol-en zelaian.

Gero esango dute atzelariak ez daukatala erreflexurik eta atearen aurrean baldarrak direla!

Falta bat errematatzeraz igo nintzen. Ez genuen errematatu, baina arean geratu nintzen. Bigarren jokaldian baloia nire ingurura heldu zen, boleaz ondo jo eta atearen alde batetik sartu zen. Atzelaria izanda, ez da erraza golak sartzea, eta pozik nago. Ez zuen partidua irabazteko balio izan, baina bai puntutxo bat batzeko.

Huesca azkenengo dago eta sei puntura du salbazioa. Zelan dago taldearen animoa?

Momentuaren arabera da hori. Partidu bat galdu eta hurrengo egun bietan ez gara oso animoso egoten. Baina entrenatzaileak eta bere lantaldeak egunero animatzen gaituzte. Alde horretatik,

zortea dugu. Asko lantzen dute motibazioa, eta eguneroko lana askoz ere errazagoa da horrela.

Lehen mailari eustea sari bat litzateke ala beharizan puntu bat ere sentitzen duzue? Hau da, zer punturainokoa da presioa?

Hona heldu naizen momentutik, hainbat kazetarigaz izan dut hartu-eman eta ez dut inondik inora ere sentitu presiorik. Behin kazetari batek esan zidan: "Huescako jarraitzailea den auzokide batezagaz topo egiten dudako bakoitzean, aurten partidu denak galduta ere berdin diola esaten dit". Azkenean, eurentzat sari bat da lehenengo mailan egotea. 55.000 biztanleko herri bat da, herri txikia beste askoz alderatuta. Zaleak partidu denetara etortzen dira animatzera. Beti txalotzen. Alde batetik, eskertzekoa da, baina, bestetik, ikusten da exigentzia maila justukoa dela eta horrek mailari eusteko aukera eder hau pasatzen uztera eramane dezakeela taldea.

Herri eta talde xumeek gero eta gaitzago dute lehenengo mailan mantentzea?

Ez dut uste horrela denik. Azken urteetan kontua berdintzen joan da. Telebistek gero eta diru gehia-

go uzten dute eta mailaz igotzen diren klubek dirutza jasotzen dute. Saillkapenaren erditik beherakoen artean ez dago hainbesteko alderik aurrekontuetan. Edozein taldek aurrekontu polit bat maneiatu dezake talde on bat egiteko.

Partidu askotan titular aritu zara eta nahikotxo ari zara jokatzeko.

Horixe izan zen Athleticetik irteko arrazoi nagusienetakoa bat. Gehiago jokatu gura nuen, eta ogibide dudako kirolagaz zelaian gozatu. Arlo horretan, pozik nago.

“**Entrenatzaileak bere konfiantza eman dit. Eskertzekoa da. Horrela, beste modu batera eramaten da eguneroko lana**”

“**Bozketa bat egin zen jokalarien artean, eta neu aukeratu ninduten taldeko kapitain izateko**”

Entrenatzaileak bere konfiantza jarri du nigan. Eskertzekoa da, eta, horrela, beste modu batera eramaten da eguneroko lana.

Gainera, kapitainaren besokoa daramazu.

Taldean pare bat lesionatu egin ziren, eta kapitainak falta ziren



Xabi Etxeita Cornellá-El Prat futbol zelaian, berak sartutako berdinketaren gola ospatzen.

Paleta goman, elite mailako finalerdiak eta finalak Mallabian jokatu dituzte

Zapatu arratsaldeko jardunaldian erabakiko dira finalak

PALETA GOMA • JOSEBA DERTEANO

Paleta goman goi mailako kirolariak eman ditu Mallabiak. Beraz, ez da kasualitatea Euskal Herriko txapelketa nagusia bertan jokatzea. Aurten ez da mallabitarrik heldu azken txanpara, baina zaleek modalitateko pilotaririk onenak ikusteko aukera izango dute, finalerdiak eta finalak Mallabian jokatu dira eta.

Finalerdi bat zapatu honetan jokatu da, 19:30ean. Nagore Martin eta Laura Saez gasteiztarrek Olatz Arrizabalaga gernikarra eta Ariane Arrieta hernaniarra izango dituzte aurrez aurre. Martin eta Saez izango dira finalera sailkatze-

ko faborito. Martinek 24 urte ditu eta sasoi betean dago. Gaur egun bera da aurrelaririk onena. Saezek 39 urte ditu, baina, hala ere, maila handian dabil oraindik. Beharbada ez du izango gazteagotan zuen kolperik, baina oso pilotari segurua da, defentsa bikainekoa, eta oso zaila da berari tantoa egitea. Arrizabalagak eta Arrietak gasteztasuna izango dute alde. Arrieta

Olatz Arrizabalagak eta Ariane Arrietak Nagore Martinen eta Laura Saezen aurka jokatu dute

kolpedun pilotaria da eta atzean agindu egin behar luke, baina partidua luzatzen bada, ikusi egin beharko da ekin eta ekin aritzeko pazientziarik baduen.

Bikote irabazleak Ane Isasmendi gasteiztarren eta Maider Mendizabal anoetarren kontra jokatu du finala, martxoaren 9an. Hauek joan zen astean sailkatu ziren. Aipagarria da Mendizabal erakusten ari den maila. 41 urte-gaz goi mailan jarraitzen du eta iaz zilarrezko domina irabazi zuen munduko txapelketan.

Mallabiko finalak paleta gomaren inguruko jaialdi handi bat izango dira. Izan ere, elite mailakoez gainera, open mailako hiru finalak ere Mallabiko pilotalekuan jokatu dituzte.



Finalak martxoaren 9an jokatu dituzte, Mallabiko pilotalekuan.



Toledora joan diren Wadokan taldeko kirolariak.

Toledoko irekian 32 domina eskuratu ditu Durangoko arte martzialen Wadokan taldeak

Urrezko 14 domina, zilarrezko 12 eta brontzezko 6 eskuratu zituzten joan zen asteburuan lehiatutako irekian

ARTE MARTZIALAK • J.D.

Wadokan taldeko kirolariek Toledoko ireki prestigiotsuan parte hartu zuten joan zen asteburuan, eta zaku bete dominagaz itzuli ziren. Aurten 24 lehiakide eraman dituzte torneora, iaz baino bederatzi gehiago, eta denen artean 32 domina eskuratu zituzten: Urrezko 14 domina, zilarrezko 12 eta brontzezko 6. Iaz baino hiru domina gehiago dira.

Aipagarria da adin guztietako lehiakideak eraman zituztela, eta, gatzetxoetan zein helduetan, maila denetan eskuratu zituztela dominak. Lortutako emaitzengatik zein bizitako guztiagatik, esperientzia aberasgarria izan dela

adierazi dute Wadokan taldeko kideek.

Toledoko irekia estatuan egiten den torneorik inportanteenetakoa da eta nazioarteko txapelke-

Gatzetxoetan zein helduetan, maila denetan lortu zituen dominak Wadokan taldeak

tak irabazitako lehiakideek parte hartzen dute. Ehunka kirolari batzen ditu urtero, eta Wadokan taldeak hainbat urte daramatza parte hartzen.

Asteko kirolaria



SILVIA TRIGUEROS GARROTE

Abadiño, 1976

“Ezinbestekoa izaten da norbere burua ondo ezagutu eta momentu txarrei buelta ematea”

Bilbon hasi eta Gasteizen amaitu zen 110 kilometroko lasterketa irabazi zuen Triguerosen

hartzen. Joan zen asteburuan, Bilbon hasi eta Gasteizen amaitu zen Basque Ultra Trail Series 110 kilometroko proban parte hartu eta garaipena lortu zuen.

Zelan joan zen lasterketa?

Egia esan, ondo. Jarrira nuen helburua bete nuen. Nire asmoa 15 ordu eta 15 minututan egitea zen, eta 15 ordu eta 11 minututan osatu nuen proba. Gainera, orain urte bi

baino askoz gutxiago sufritu dut. Horrelako proba batean sufritu egiten da, baina, azkenean, gauza onekin geratzen zara.

Proba hasieran txarto pasatu zenuen, tripako minekin. Baina, gero, buelta eman zenion lasterketari.

Lasterketa hasi aurretik, komuna joan eta hilekoa jaitsi zitzaidalako konturatu nintzen. Lehen kilometroetan, hankak oso astun sentitzen nituen eta tripetako minekin

hasi nintzen. Lehen kilometroetan lau bider gelditu egin behar izan nuen, eta buelta emango niola esaten nion neure buruari. Laugarren orditik aurrera hobeto sentitu nintzen, eta behin tripetako arazoari buelta emanda, banekien amaituko nuela. Gure probak luzeak izaten dira eta ezinbestekoa izaten da norbere burua ondo ezagutu eta momentu txarrei buelta ematen jakitea.

Zein da zure hurrengo helburua?

Urteko helburu nagusia irailean jokatu den Tor des Geants lasterketa izango da. Beraz, ordura arte, hilean behintzat lasterketa batean parte hartuko dut.

Iaz erakustaldia emanda irabazi zenuen Tor des Geants lasterketa. Oraindik asko falta den arren, nola ikusten duzu zeure burua?

Orain urtebete zelan nengoen eta orain zelan nagoen alderatuz gero, orain askoz ere hobeto nago. Oraingoan, ondo daramat denboraldia. Ez daukat inongo minik, eta gogotsu nago lan egiteko. Nire ustez, horrenbeste urteren ostean, gogoari eustea ezinbestekoa da. Horrela jarraituz gero, urte interesgarria izango dudalakoan nago.

KORRIKALARIA • Irailean jokatu den Tor des Geants lasterketa urteko helburu nagusi duen arren, Silvia Triguerosen ez du atsedenik

"Taldeko eta inguruko jendea batuta, 50 bat lagun gara; familia handitzen doa"

Urterik urtera, Durangon gero eta pisu handiagoa hartzen ari den kluba da Mendibeltz



Eneko Sampedrok 10 urte daramatza Mendibeltz taldean, eta taldearen garapenaren lekuko izan da.

ARETO-FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Areto-futboleko talde asko lagun kuadrillek sortutakoak dira. Batzuentzat talde hori nahikoa da euren nahiak asetzeko. Baina beste hainbatek eboluzionatu egiten dute, hazi eta zabaldu egiten dira, eta areto-futbola gizartera heltzeko erreminta moduan ikusten dute. Durangoko Mendibeltz da talde horietako bat.

Eneko Sampedrok (Zaldibar, 1991) hamarkada bat darama bertan, eta garapen horren lekuko eta sustatzaile izan da. "Taldeko eta inguruko jendea batuta, 50 bat lagun gara. Familia hazten ari da", azaldu du. 2016tik hona hiru talde berri sortu dituzte. Harrobia lantzea izan zen lehenengo urratsa. Orain urte bi gazteen taldea sortu zuten. "Adinean gora gindoazen eta etorkizunera begira gazteekin lan egitea komeni zela ikusi genuen", azaldu du Sampedrok. Aurten, lan horren uzta jasotzen ari dira. Iñaki

Balier, Ibai Alonso, Felix Agorria eta Sabin Zenarrutzabeitia lehen taldera igo dituzte eta euren ekarpenak lagunduta, Maila Gorenera igo daitezke. "Ez igota ere, orain arte egin dugunagaz, klubaren

historiako denboraldirik onena litzateke", Sampedroren ustetan. B taldea ere sortu dute aurten, jokalariei denei tokia egiteko.

Etorkizunean gaztetxoengana hurreratzeko asmoa dute. Duran-

goko ikastetxeetako gurasoen elkarrekin batu gura dute, euren seme-alabek areto-futbola probatu gura badute Mendibeltzek atea zabalik duela jakinarazteko.

Emakumeen taldea

Emakumeen taldea aurten abiatu dute eta Sampedro da entrenatzailea. "Guri berdin zigun hasiberriak izatea. Denei egin genien tokia, eta 12 jokalaria batu ziren. Euretatik

'Emakumea eta kirola' izeneko mahai-inguru antolatu dute, martxoaren 14rako

Ikastetxeetako gurasoen elkarrekin batu gura dute, gaztetxoak hartzeko prest daudela esateko

11 lehenengoz dabilta", dio. Gainera, martxoaren 14an, 18:30ean, mahai-inguru bat egingo dute Andragunean, *Emakumeak eta Kirola* izenburupean: Iurretakon ibilitako Gorette Hernandez, Beti Gol taldeko jokalaria Iraide Legina eta Mendibeltz taldeko Ane Solagaistua batuko dira. Kirolaren bidez, kirola baino haratago heltzeko ahaleginaren adibidea da. Hona beste adibide bat: azken asteetan mugikor zaharrak jaso dituzte Angelman sindromearen elkarreartzat.



Mendibeltz taldeko jokalarien familia argazkia.

Gai librea

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Beti aurrera begira

Aurreko astean DRTk agur esan zion errugbiko Ohorezko B Mailari. Hainbat urte dira maila horretan eman dituztenak, txarto ez banabil 15 urte. Une honetan maila honetan urte gehien daraman taldea dugu DRT.

Ibilbide honetan tarte gazi zein gozo ugari egon dira. Gaziak, batez ere, azken urteak, beti hortxe mugan jaitsiera saihesteko, baina une oro aurpegia emanaz, eta azken momentura arte borrokatuz. Tarte gozo eta oso gozoak ere bizi izan ditugu, batez ere denboraldi zoragarri hura Ines Etxegibelen ardurapean, non Ohorezko A mailarako Igoera Fasea jokatzeke aukera ia gauzatu zuten, sekulako jokoa erakutsiz.

Aurten, errealitatea gordina bihurtu zaigu, eta hasierako partidatik argi zegoen DRT hautagai argia zela maila galtzeko. Hala ere, maila galtze hau porrot moduan har dezakegu? Nik argi daukat ezetz. Zergatik?

DRTaren hautua beti etxe-koekin jokatzea izan delako. Atzerritik jokalariren bat izan dute beraien ibilbidean, baina argi izan dute senior taldea harrobitik elikatu behar zela eta behar dela. Hortxe dago nire aburuz talde honek duen indarretako bat, hau da, errugbi eskolan hasi eta hezitako umeek aurrera egiten badute, etorkizunean goiko taldean jokatzeke aukera izango dutela. Egun, senior taldeko jokalarien %90 harrobitik datoz, klubaren beheko mailetan aritu baitira.

Eta orain zer? Lanean jarraitzea besterik ez dago. Lanaren ordaina izaten dira garaipenak, beraz, hurrengo urteetan talde indartsua osatzen joan beharko dira, eskarmentua hartu, eta berriz ere merezi duten mailara igo ahal izateko. Guk helburua lortu genuen, beraiek zergatik ez? Gora DRT!

R.P.S. 214/06
A. Urreta podologo

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Martxoak 14
19:00 "Sex o no sex"
Ibarretxe Kultur Etxean (Helduentzat)

Martxoak 15
17:00 "Futbolariak eta printzesak"
Ibarretxe Kultur Etxean (Umeentzat)

Apirilak 5
19:00 "Frios y calidos"
Ibarretxe Kultur Etxean (Helduentzat)

Maiatzak 10
17:00 "Zirkoko izarrak"
Ibarretxe Kultur Etxean (Umeentzat)

Maiatzak 18
19:00 "Idiota"
Ibarretxe Kultur Etxean (Helduentzat)

Iurreta
Eleizateko Udala

2019

Antzerkia Bultzatuz

Sarrera dohainik
Gonbidapenak hartzeko kultur etxean

Bizkaia



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoduranguesado.com



DURANGO

3 logela

100 m²

SAN IGNACIO: Piso de 100m². 3 logela armairuekin, 2 bainugela, sukaldea eta egongela terrazarekin. Dena kanpora begira, eguzkitsua.

256.000€



IURRETA

3 logela

IURRETA: 3 logela, bainugela, sukalde handia, egongela eta terraza. Igogailua eta ikuspegi ederrak.

120.000€



DURANGO

2 logela

DURANGO: Berriztatutakoa. Lehenengo etxebizitza izteko egokia. 2 logela, sukalde-jangela, egongela eta eguzkitsua.

115.000€



ABADIÑO

484 m² lurzorua

126 m²

ABADIÑO: Familia bakarreko etxebizitza + atikoa. Txokoa beheko suarekin. Garajea eta egurtokia. Eraikitze baimena duen 1000m² lurzorua aukera.

350.000€



DURANGO

3 logela

1 komun

TABIRA: 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela terrazarekin, ganbara. Dena kanpora begira, eguzkitsua, ikuspegiak. Bizitzera sartzeko prest.

190.000€



DURANGO

3 logela

2 komun

PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, ganbara. Garajea aukeran.

225.000€.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Eraikin berria. 3 logela, azken etxebizitza salgai. **200.000€.**

DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trasteroa. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.

DURANGO. San Ignazio Auzunea. Guztiz erreformatzeko pisu ederra. 3 logela, komun bi, sukaldea, eta egongela balkoiarekin.

MAÑARIA. 3 logelako pisua, komuna, sukaldea, despentsa, egongela eta ganbara. **95.000.-€.** Bizitzeko moduan.

DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta ganbara. Bista ederrak

BERRIZ. Hiru logelako pisua. Komuna eta egongela, ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea. Durango. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbararekin.

IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitza. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea. Oso polita

ATXONDO. Marzana. Izugarriko txaleta salgai ikuspegi bikaina, berri berri!!!

MAÑARIA. Izugarriko baserria salgai. Herrian bertan.Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berrizatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, **350 €**-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai **25.000.-€** tik aurrera

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com



ABADIÑO

670 m²

ABADIÑO: Bi familiako baserria. 670m²koa eta 17.000m²ko lurzorua. Estructura eta hormak egoera onean. Berrizatzeko. Kokapena eta sarbideak ezin hobekak.

500.000€



DURANGO

3 solairu

260 m²

CHALET ADOSATUA. 260 m². 3 solairu eta sotoa. Distribuzio ona. Terrazak eta jardina. Ekialde eta mendebaldera begira

490.000€



GARAI

3 solairu

235 m²

GARAI: AUKERA!! ADOSATUA 235m² 3 solairutan banatuta. Kokapen ezin hobea. Ikuspegi ederrak. Alokairua erosteko aukerarekin.

395.000€



DURANGO

3 logela

86 m²

ANDRA MARI: Etxebizitza eskusiboa eraikin enblematico batean. Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrira, 2 bainugela. Gaueko tarifa.

285.000€




MATIENA

3 logela

235 m²

MATIENA: 83,34 m². AUKERA ONA!! 3 logela, egongela, sukaldea jarrira, 2 bainugela, balkoia, ganbara eta garajea.

180.000€



MATIENA

3 logela

64 m²

MATIENA: 64m² . 3 logela, bainugela, sukaldea jangelarekin eta egongela. Argin naturala etxebizitza osoan. Berogailua.

112.000€ / NEG.

//DURANGO

ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000 €** / E.E.Z= E

ANBROSIO MEABE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, ganbara eta garaje itxia. **265.000€** / E.E.Z=E

ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 250.000€ **ORAIN 230.000 €** / E.E.Z= F

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z= F

ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z= E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 205.000 € **ORAIN 198.000€** / E.E.Z= E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainueta eta igogailua. **321.500 €** / E.E.Z= F

KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000 €** / E.E.Z= Bidean

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ **ORAIN 256.000 €** / E.E.Z= E

MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€** / E.E.Z= F

MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 €** / E.E.Z= E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 260.000 € **ORAIN 245.000 €** / E.E.Z= E

SASIKOA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€** / E.E.Z= E

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / **ORAIN 130.000 €** / E.E.Z= E

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m²ko lur-sorua. **640.000€**

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z= Bidean

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 €** / E.E.Z= F

//BERRIZ
ANDIKONA AUZO Berreraikitze baserria. **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta balkoia. **120.000€**/E.E.Z=F

BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia **195.000€**/E.E.E= E

ELIZONDO AUZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € **ORAIN 137.000€** / E.E.Z= G

ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€ **ORAIN 85.000€** / E.E.Z= E

OLAKUETA PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 €** / E.E.Z= G

//ELORRIO

ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 € **ORAIN 179.000 €** / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran.

//IURRETA

FAUSTE Baserria lurzorugaz, **220.000€**/E.E.Z=G

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€** / E.E.Z= E

//MAÑARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€** / E.E.E= Bidean. Txokoa aukeran

//ZALDIBAR

ZALDUA ELIZATEKO PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua. **150.000€** / E.E.Z=G

ZALDUARAN KALEA Banakako etxebizitza. 373m² inguru hiru solairutan banatuta. 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 669m² inguruko lur sailarekin. **460.000€** / E.E.Z= E

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z= Bidean

//BERRIAK

MATIENA-Txinurrisolo 3 logela, sukaldea, egongela, balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z= F

ATXONDO-Arrazola errepidea 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E= Bidean



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. 70 metro karratuko etxebizitza trastelekuarekin salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 631-12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiño Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi badozu deitu 600464411 telefonora. etxetu53@gmail.com

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Zaintzaile moduan lan bila.

Zaintzaile moduan lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: Tel.: 631 925 525 Eskerrik asko.

Esperientziadun umezalna. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. maila) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin

harremanetan: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAITZAK

ETXEKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxe lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Adinekoen zaintza lanak. Adineko pertsonen zaintza lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. (gaztelania) jorgebeloorin@gmail.com

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxe lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonetara egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko

pertsonak edo umeak zaintzen edota etxe lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappz kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644930679

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburutan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile moduan lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxe garbiketara lanak egiteko, arropa litzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehalako prestutasunarekin: Tel.: 644558390

ibaizabal
IKASTOLA



DURANGALDEKO IBAIZABAL IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAK, LAN POLTSA OSATU BEHAR DU ZEREGIN HONETARAKO:

IBAIZABAL IKASTOLAKO
TABERNA ZEIN OSTATU
HARRERA LANA

Euskalduna izatea ezinbesteko baldintza izango da. Lan poltsarako aukeratuen artean esperientzia eta taldean lan egiteko gaitasuna, hurbiltasuna, nortasuna, euskalzaletasuna... elkarrizketa bidez baloratuko da.

Curriculumak honako helbide honetara bidali martxoaren 8a baino lehen, LAN POLTSA erreferentziarekin: zuzendaria@ibaizabalikastola.eus.



Deskarga ezazu
aste honetako

ttop

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.



DESKARGATU
APP Storean



DESKARGATU
Play Storean



Aktualitateko
gaiak, poltsikoan

Gozatu Ttop
zentzumen guztiekin

Bi edizio:
Bizkaia eta Gipuzkoa

Botikak

BARIKUA, 1 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 2 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

DE DIEGO Intxaurrenondo
22. - DURANGO

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 3 · 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA
9 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 4 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrenondo
22. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 5 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 6 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 7 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



Marekek 17 urte egin zituen atzo. Zorionak lurretako eta Durangoko familien partez.



Zorionak, **Simone!** Domekan 5 urtetxo eingo dauz gure etxeko sorginek, mosu handi-handi bat zure neba eta etxeko danon partez!



Gure etxeko bitxoak 4 urte betetzen ditu martxoaren 4an. Zorionak, **Irati!** Mosu haundie Ani, Ilargi, Mitxi, Errentxu, aitatzu eta amatxuren partez. Maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 20° / 9°



ASTELEHENA ↓ 15° / 7°



EGUAZTENA ↓ 22° / 11°



DOMEKA ↓ 20° / 8°



MARTITZENA ↓ 22° / 11°



EGUENA ↓ 25° / 13°



ALBERDI

HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

“Surrandiek bere lekua finkatzea lortu dute; ea gazteek ohiturari jarraitzen dioten!”

Azken 20 urteetan lez, hutsik egin barik irtengo dira Surrandien Konpartsan Nagore Lozano (Durango, 1974) eta Karmelo Alberdi (Iurreta, 1951), puxikak eskuan hartuta. Jaizale txistulari elkarte eta Musika Banda izango dituzte bidelagun

Nagore Lozano Zarandona eta Karmelo Alberdi Fernandez• Surrandiak

batzen gara, eguraldiaren arabera. Surrandiek bere lekua finkatzea lortu dute. Ea gazteek ohiturari jarraitzen dioten!

N.L.: Karnabalei buruz galdetuta, askok badute Surrandien berri, ezagutzen dituzte. Horregaz gera-

tzen naiz. Askok badakite Durangon surrandiak izan zirela eta konpartsa bat badagoela.

Badaude betebeharreko arauak...

N. L.: Maskara jarrita joan behar dugu eta gerritik behera baino ezin dugu jo puxikekin. Non dantzatu ere oso zainduta dago, eta Andra Mariko elizpera sartzeko, herritarren babeslekura, maskara kendu behar da.

Berba bitan

Liburu bat?

Nagore: Ibon Martinen bat.

Karmelo: 'Outlander' saga

Inauterietako pertsonaia bat?

Nagore: Unanueko Txatxoak

Karmelo: Hartza

Abesti bat?

Nagore: Itoitzen 'Espaloian'

Karmelo: 'Oi ama Euskal Herri'

Puxikagaz zirikatuko zenukete...

Nagore: Jaiagaz bat egin eta jokoan sartzeko prest dagoena

Karmelo: Lagunen bat.

Inauterizaleak zarete?

K.A.: Asko gustatzen zait zirikatzea, eta hori ere bada karnabala. Beti mozorrotu izan naiz. Hartza, laguntzailea eta surrandi izan naiz, eta askotariko 8-9 maskara ditut etxean.

N. L.: Ez naiz oso zalea, baina lagunarteko urteroko plana dut surrandia.

Erratz kalejiran irteten zineten lehen, Durangoko txistulariekin.

N. L.: Bai, Lantzeko karnabale-tako antzeko arropekin.

K.A.: Unanuera, Altsasura eta Lantzera ere joan ginen, karnabale-tara. Donibanera eta Zuberoara ere bai. Orduan hasi ginen Durangoko Aratusteei buruz iker-tzen.

Surrandien istorioa batuz, doinu eta letrak gorpuztea ere lortu duzue.

K.A.: Bai, Ixone Aromak jarri zion letra Jesus Egigurenen musikari, 2000n. Unai Iturriaga eta Ander Ertzilla etorri ziren gero, eta, 2003an, Ane Belaustegi.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Jesus Egigurenek sortutako musika-gaz eta Ixone Aromak jarritako letrak abestuz irten ziren, lehenengoz, Surrandiak 2000. urtean, Kriskitin dantza taldearen eskutik. Zapatuan, 20. urtez irtengo da Surrandi Konpartsa bazterrak astintzera, Hartza lagun dutela. Merkatu Plazan batuko dira, 18:00etan, eta ordu erdi izango dute kalejirarako prest egoteko. Azken dantzak eta agur berbak Andra Mariko elizpean egingo dituzte, 20:00etan. Txokolatea ere banatuko dute.

Surrandiak irten ziren lehen urte hura nola oroitzen duzue?

Karmelo Alberdi: Urte gogorra izan zen! Jatorriz, txalekoe-kin zirikatzen dute surrandiek, baina, gogorregia zela-eta, puxikak erabiltzea pentsatu genuen. Baina, non lortu? Bada, Berrizko hiltegitik ekarri genituen, oso-osorik. Baserrian garbitu genituen. Barrukoa kendu eta lastoagaz puztu genituen. Hilabe-tean usaina gainetik ezin kendu egon ginen! Gerora, Bergararik ekartzen hasi ginen, garbiagoak. Ez dute zerikusirik.

Nagore Lozano: Poz handiagaz gogoratzen dut. Zerbait berria kaleratu genuen, lan handia eginda. Esan behar dugu umeek globoak erabiltzen dituztela.

Nolako bidea izan da?

K. A.: Gorabeheraduna. Baina orain bostpasei urtetik hona indartuz joan da: 80 bat puxika ekartzen ditut, eta 150 bat lagun



Lau hortza

Mikel Uriguena Ruiz Irakaslea



Euskaraz txiz egin nahi dut

Duela bi asteberu Aukeren Azoka egin zuten Landako Gunean. Horrekin batera, Sal-txitxa Alemaniarraren Jaia. Sare sozialetan, bi ekitaldi hauek iragartzen zituen kartelak zerabilen hizkuntzaren inguruko salaketa ikusi nuen. Izan ere, hitz bakarra agertzen zen bi karteletan euskaraz: otsaila. Beste guztia, gaztelania hutsean.

Asteberu horretako larunbatean lagun batekin joan nintzen Landakora. Ez zaizkit azokak bereziki gustatzen, baina osteratxoa egitea bururatu zitzaigun. Bertan nengoela, bat-batean kartelaren kontua etorri zitzaidan burura. Eta ingurura begira hasi nintzen. Errealitatea uste baino samin-garriagoa zen. Postuen izenak gaztelaniaz bakarrik zeuden arren, nire baitan pentsatu nuen saltzaileak kanpotarrak izanda, logikoa izan zitekeela. Neure burua lasaitzearren, suposatzen dut. Oker nenbilen. Ez nintzen gai izan azoka osoan kartel bakarria euskaraz topatzeko. Eskaintzak, prezioak eta informazioa, den-dena, *en perfecto castellano*. Baina tristeena edo sinestezinena bukaera aldera etorri zen. Irte-tera gindoazela, komunetako kartelarekin egin nuen topo. Eta zer irakurriko? Ba, "Servicios. WC"

Ez naiz inoiz hizkuntzaren aferarekin oso tematia izan. Oraingo honetan, aldiz, jendaurrean salatu beharreko zerbait dela uste dut. Ezin daiteke izan, 2019an, Durangon, horrelakorik gertatzea. Era-kunde publikoek badute lanik honetan. Durangoko Udalak Landako Gunea alokatzen duten enpresei euskararen erabilera exijitu beharko lieke.

Aski da! Euskaraz txiz egin nahi dut!



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eksklusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaituzte!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaudu. Estás en tu casa

www.sukia.com